



Jakingarriak

Landa-eremuko
eskolak,
eskola txikiak





Nora Salbotxen argazkia (2007).

Argitaratzailea:	Mondragon Unibertsitatea Humanitateak eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea
Laguntzailea:	Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila
Erredakzioa:	Mondragon Unibertsitatea Humanitateak eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea Dorleta auzoa z/g 20540 Eskoriatza Tfnoa: 943-714157 Faxa: 943-714032 Helbide elektronikoa: biblioteka@huhezi.edu eta fazitegi@huhezi.edu
Zuzendaritza:	Nerea Alzola eta Elena Lopez de Arana
Erredakzio Kontseilua:	Nora Salbotx eta Mariam Bilbatua
Erredakzio Idazkaria:	Agurtzane Bikuña
Itzultzailea:	Edorta Agirre
Euskara Zuzentzailea:	Asier Irizar
Diseinua:	Alex Azkarate
Inprimategia:	Antza inprimategia
L.G.:	SS-981/92
ISSN:	1697-6215



Iñigo Bustamante Egiluz (2008)



Nora Salbotxen argazkia (2007)

BERRI BIBLIOGRAFIKOAK

6 Liburu berrien albisteak

12 Esan dute

GAI MONOGRAFIKOA

Landa-eremuko eskolak, eskola txikiak

18 Sarrera

20 Ballarena Iturburu, Xabier
Euskal Herriko landa-eremuko eskolak

26 Agirre, Lorea
Altxor bat dugu esku artean

32 Salegui Rivera, Izaskun
Sasoikako langileak

36 Murillo García, Jose Luis
Ba al da landa-eskolarik?

42 Gereka Zelaia, Mikel
Eskola txikiak, txikitasunean handi

50 Boix, Roser
Espainiako landa-eskola hobetzeko hainbat proposamen

54 Laiz Sasiain, Elena
Gelako esperientzia bat: errezetak. Nola egin genituen errezetak eta errezeta bilduma

64 BALIABIDEAK

- Haur literatura
- Eskola txikiak, ikt-ak eta idazketa kooperatiboa

Liburu berrien albisteak



Marchesi, A. (2007). *Sobre el bienestar de los docentes. Competencias, emociones y valores*. Madrid: Alianza Editorial.

Azkenik atera da liburu bat irakasleen ongizateaz hitz egiten diguna. Geure buruarekin gustura egoteaz dihardu, zoriotsuak izan gaitzela eskatzen digu, eta horrek guztiak izan behar du gure lanaren baldintza eta ondorio, izan ere "merezi du irakastea".

Pentsarazi eta gozarazten duen liburua da; ez du ukatzen hezkuntza-ekintza zaila dela, ez ditu arazoak, arriskuak eta zalantzak eta irakasleen eragozpenak

edo segurtasun gabezia ukatzen. Baina beste gauza batzuk hobesten ditu, alegia, aztertzea irakaskuntza-ren komunikazio-dimentsioaren aberastasuna, irakasleen eta ikasleen arteko harremanaren edertasuna, bokaziozko lana izatea, ikasleekiko, familiekiko eta gizartearekiko konpromiso moral eta pertsonalaren beharra.

Murgilduta gauden gizarte aldakor honetan irakasleek izan behar dituzten konpetentzia profesionalak azaltzen ditu:

- *Konpetentea izatea ikasleen jakin-mina areagotzeko eta beren ezagutzak zabaltzeko.*
- *Ikasleen garapen afektiboa eta eskolako bizikidetzaz zaintzeko prestaturik egotea.*
- *Ikasleen autonomia morala ahalbidetzeko gai izatea.*
- *Kultur askotariko hezkuntza garatzeko gai izatea.*
- *Familiarekin lankidetzan aritzeko prestatura egotea.*
- *Lankideekin batera eta taldetan lan egiteko prest egotea.*
- *Lanean intuizioa erabiltzea.*

Konpetentzia profesional hauen guztien garapenean eta adierazpenean erabat inplikatzeko da hezitzailea, eta horretan zerikusi handia du norberaren historiak, eskarmentuak eta ibilbideak, lan egiten duen inguruak, erreferentzia taldeetako kide izateak, eta, noski, ez dira ahaztu behar Hezkuntza Administrazioaren keza eta zaintza ere.

Testuinguru horretan, beraz, garrantzi handia hartzen du irakasleen ongizate emozionalak. Emozioen mundua sartzeko da atal horretan, pertsonen arteko harremanak dauden edozein lan-esparrutan azaltzen baita mundu hori: norberaren emozioak ezagutu eta identifikatzea, emozio horiek kontrolatu eta bideratzea, automotibatzea, ikasleekiko enpatia eta errukia garatzea, gizarte-trebetasunak garatzea.

Izan ere, liburuaren 149. orrialdean adierazten den bezala, "irakaskuntza da irakaslearen eta ikasle talde ba-

ten arteko interakzio positiboa, eta ez da ez borondatezkoa eta ez askatasunez aukeratua. Irakaskuntzaren meritua da ezarritako harreman hori, irakasleen eta ikasleen obligazio dena, erlazio eraikitzaile bilakatzea, non konfiantza, estimua eta elkarrekiko begirunea izango diren osagai nagusiak".

Liburuak zoriotsu izateko gonbitea egiten digu eta lanean ari garenean geure buruarekin zoriotsu izateko eskatzen digu. "Irakasle lanbideak osagai moral handia du, belaunaldi berriekiko konpromiso aktiboa eta positiboa eskatzen du, ikasleak zoriotsuak izan daitezten ahalbidetu behar du, belaunaldi berrien eta gizateria osoaren optimismoa eta itxaropena iraunarazi behar ditu, eta, beraz, ezinbestean onartu behar da irakasleak proiektu horretako kide dela sentitu behar duela; horrenbestez, bere jardueran zoria transmititu behar du. Eta zoriotsua izango da lanean baldin eta asebeteta badago, baldin eta ikasleen hezkuntzak esanahia duela nabaritzen badu" (178. or.).

Juanjo Otaño
Mondragon Unibertsitateko Humanitate
eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea



Lienas, G. (2007). *Carlotaren egunkari urdina* [El diari blau de la Carlota] (J. M. Lasa itz.). Donostia: Erein.

Gemma Lienas-ek berriz ere dakarkigu Carlota, bere pertsonaia ezagunenetariko bat. Oraingoan, gaurkotasan osoa duen gai bati buruz, tratu txarrak, hitz egiteko. Ikasurte berria iritsita, institutuan aurkeztu beharreko lan berri bati ekin behar dio Carlotak, eta telebistak asteburuan eskaintzen dizkion berriak hartu ditu iturritzat.

Genero indarkeriarekin zerikusia duten hiru hilketak. Halako eta bestelako iritziak entzuten ditu. Neba Markosek uste du indarkeria horren jatorrian matxismoa dago-

ela, alegia, gizonak emakumeak baino gehiago direlako usteagatik sortzen dela. Baina amak argi eta garbi azaldu die seme-alabei sexu indarkeriaren eta genero indarkeriaren arteko aldea. Azalpenak entzun ondoren, gaiarekiko interesa piztu zaio Carlotari, eta Kandela tutoreari galdetu ondoren, erabaki du gai hori izango dela bere lanaren eta egunkariaren ardatza; horrenbestez, lagunei jakinarazi eta guztien artean erabaki dute zein kolore izango duen egunkariak: URDINA (zeruaren eta askatasunaren kolorea, indarkeria hori jasaten duten pertsonak behar duten askatasuna, hain zuzen).


Hala bada, egunkarian idazten hasi da Carlota. Lehenengo, definizioak, berriak eta gertu-gertutik jaso dituen lekukotasunak bildu ditu. Ohi bezala, familia osoa inplikatu du, eta, bereziki, amona eta izeba Octavia. Interneten bidez hainbat forotan sartu da, bai eta dokumentazioa eta iritziak jaso eta bildu ere. "Gregor Sansare" izeneko blogean sartu da; pertsonaia horrek, Gregor Sansarek, hain zuzen, ikastetxean jasan zuen bullyinga azaltzen du. Irakurritakoak lana berregituratzeko balio izan dio Carlotari; indarkeria guztien inguruan arituko da, baina indarkeria jasaten dutenak bereiziz, izan ere indarkeria erabiltzen dutenengan ezaugarri komuna aurkitu du: "mendean hartzen dituztenak gutxiesten dituzte".

Kapituluetan indarkeria motak sailkatu ditu: genero indarkeria, sexu indarkeria, bereziki nabarmentzen du haurrek esparru guztietan jasaten duten indarkeria, familia indarkeria, eskolakoa, adin bereko adiskideen artekoa...

Hainbat fitxa sortu eta antolatu ditu. Fitxa horietan biltzen ditu definizioak, bizipenak, lekukotasunak, diapositibak eta tratu txarrak eragiten dituztenak identifikatzeko hainbat test; horrez gain, egoerei aurre egiteko baliabideak ere eskaintzen ditu.

Egunkari urdin hau, irakurgai bat baino gehiago da. Ikastetxeetan erabili beharko litzatekeen gida da honakoa, lan egiteko eta hausnartzeko, ikastetxe horietan sortzen diren zalantzak eta gertatzen diren arazoak ebazteko erabil daitekeena, betiere ikuspegi gizatiarrago eta ez larderiatsu batetik; ikasleak eurak, nabarmendu gabe, eta jarrera egozentrikoak alde batera utzita, bizikidetzat atseginago eta lasaiago bat izaten lagundu dezaten.

Itziar Murua
Aretxabaletako
Kurtzeberri Eskola BHI



Boyne, J. (2008). *Pijama marradunaz jantzitako mutikoa* [The boy in the striped pyjamas] (M. Larrañaga itz.). Irun: Alberdania.

Era askotara irakur daiteke errealitatea; eta liburu bat ere era askotara irakur eta interpreta daiteke. Era horietako bakoitzean errealitatearen arlo bat aztertuko dugu noski, ikuspegi bat nabarmenduko dugu, testuinguru berezia eraikiko dugu.

"Pijama marradunaz jantzitako mutikoa" emozioz eta edertasunez beteriko kontakizuna da; ume bat da protagonista, irakurri ahala bere ikuspegitik interpretatzen du, bere barne-mundutik, begien aurrean ikusten duena.

Ipuin eta eleberri guztiek dute irakaspenen bat, pertsonala dena, eta irakurleak berak egiten duena. Hala ere esaten zuen maisu sufi batek: "Ipuin bakoitzaren esanahia azalduko banizue, mamurtutako fruta ematea bezalako zerbait izango litzateke hori".

Hala ere, "Pijama marradunaz jantzitako mutikoa" liburuan ondorioztatu ditudan irakaspen batzuk ematen ausartuko naiz:

- Haur-egozentrismoa (liburuan oso modu soil eta argiaz dago adierazita) mundua irakurtzeko era bat besterik ez da: adierazten du haurrak nola ikusten

duen errealitatea bere bizipenetatik, bere ikuspegitik; berea baino ez dela existitzen uste du, eta ez du pentsatzen besteek ere izan litzaketela bizipenak, bestelako ikusmoldea, errealitatearen beste ikusker bat.

- Helduok ere sarri ikusten dugu errealitatea garenetik eta bizi dugunetik -nahiz eta esan diguten egozentrismoa Lehen Hezkuntzarekin batera garaitzen dela-, eta ez dugu pentsatzen gugandik haratago badirela bestelako errealitateak, badela jendea sufritu eta gozatzen duena, nahiz eta guk jakin ez, eta nahiz eta zergatik eta nola gertatzen den hori ulertu ez.
- Badago burbuila batean bizitzerik; horrelako batean ziur eta babestuta sentituko gara, baina muzin egingo diegu gure inguruan bizi direnen barruko egitari eta diferentziari.
- Gure haurrei eman geniezaieke gehiegizko babesa, eta desberdintasuna ezkutatu, gustatzen ez zaigun errealitatea estali. Baina horrek ez du esan nahi mundu hori ez dagoenik: mundua ez da gure sinismen, uste eta desioetara mugatzen.

Mundua guk pentsatzen eta nahi duguna baino gehiago da. Bada zerbait gehiago, askoz ere gehiago, gure mundu mugatua baino. Eta mundu horri ez ikusiarena egiten badiogu geure baitan itoko gara, geure mugatan birrinduko gara, diferentzia izan badela jakin gabe, eta diferentzia hori errealitatearen eguneroko osagai bat dela jakin gabe, eta, era berean, jakin gabe errealitate horretan eraikitzen dutela pertsonak beren nortasuna.

Juanjo Otaño
Mondragon Unibertsitateko Humanitate
eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea



Forges, J. F. (2006). *Educar contra Auschwitz. Historia y memoria*. Barcelona: Anthropos.

Historia unibertsalaren ikuspegitik, behinik behin, oroitzen tristeko mendea izan da XX.a. Europari begiratu zuten bederen, eta 1914ean hasten den Lehenengo Mundu Gerrari (1914-1918) begiratu zuten gero, zibilen %5 hil omen zen gerrate hartan. Are ankerragoa, baina, bigarrenaren (1939-1945), zibilen %50 hil zelako!!!

Hala ere, ez dugu denboran urruti samar joan behar, gertuko gerrateetan ere (Bosnia, Kosovo, Ruanda, Sierra Leona,...) zibilak (emakumeak, haurrak, adinekoak,...) izan direlako biktimarik ugariak. Dena dela, gerrateen ankerkerietan barne, ez da inoiz eta inon lortu gaindizterik hain ondo planifikatuta zegoen europar juduen triskantza edo holokaustoa (Shoah, judutarrez).

Judutarren aurka eragindako sarraskien orroak ez dira, ez, oraindik isildu. 1939tik 1945era izandako Bigarren Mundu Gerran, han eta hemen eraikitako kontzentrazio esparruak (Treblinka, Dachau, Auschwitz...) aipatuta soilik, ziur askori hotzikara ere badatorkiola. Baina, ez denoi antza, holokaustoa gertatutakoaz ados ez dagoenik edota onartzen ez duenik ere ba omen delako. Alegia, kontzentrazio esparruetan gertaturikoa judutarren "muntaiak" besterik ez dela izan pentsatzen dutenak ere badaudelako. Hori guztia non eta, paradokikoagoa de-


na, Europaren bihotzean, giza eskubideak sortu eta garatu zituen lurraldean, non Kristautasuna azken mila urtean nagusia izan den lur eremuan (!).

Ez datozkigu batere gaizki liburu honetan azaltzen diren hausnarketak eta aholkuak ere gure iragan hurbilaz hausnartzeko. Izan ere, "oroimen historikoaren" legea onartu aurretik eta ondoren sortutako eztabaidak jarraitzen dutenean, edota oraindik ere Espainiako Gerrate Zibilean (1936-1939) eta Frankoren diktaduran (1939-1975) alderdi askoren hausnarketa sakonik egin gabe gaudenean, baliagarriak izango zaigu liburu honetan esaten dena.

Baina ezin dugu ahaztu frankismoak, Alemaniako nazional sozialismoak egin zuen bezalaxe, gizarte eredu egoki bat eraiki nahi izan zuela. Ez, jakina, arraza elementuari hainbesteko garrantzia emanez, baina bai ortodoxia nazional eta katoliko bat sortu nahian. Eta hori lortzeko, gainera, erailketa politiko handienak (200.000tik gora zenbatzen direnak) 1939tik aurrera, diktadura garaian beraz, izan ziren. Eta harrigarria badirudi ere, Franko hil zenetik 28 urte igaro eta gero, badugu oraindik frankismo garaia eragindako biktimen aurrean memoria hutsunea. Are nabarmenagoa, agian, hutsune hori, hezkuntza arloan. Hainbestearino, ondoriozta gezakeela, gainera, oraingo gazteek ez dutela ondo eza gutzen gure historia hurbila.

Nola irakatsi eta hezi etorkizuneko hiritarra ohartaraziz, alde batetik, gizakia gai dela arestian esandako sarraskiak egiteko? Eta, bestetik, zer egin hori berriro gerta ez dadin? Galdera hauek dira liburu honen egilea den Jean François-ek gurekin partekatu nahi dituenak. Eskarmentu handiko irakaslea dugu J. François, antzerako makina bat lan kaleratutakoa, eta berak eskolan egiten ari denaz hausnartu eta adierazi nahi digu liburu honen bitartez. Beraz, hezkuntzan, oro har, eta gizarte zientzian dihardugunontzat bereziki aproposa den liburua. Dokumentuetan oinarritutako proposamen pedagogiko bat den liburua. Adieraziz, bertan ere, literatura eta zinea baliabide (bitartekari) onak izan daitezkeela gazteen kontzientzia historikoak suspertzeko.

Iñigo Ramirez de Okariz Telleria
Mondragon Unibertsitateko Humanitate
eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea



Díaz, C. (2006).

Pedagogía de la ética social. Para una formación en valores. Sevilla: Trillas.

Ziurrenik, irakurleek izango dute Carlos Díaz filosofo pertsonalista eta Madrilgo Emmanuel Mounier Institutuaren sortzailearen berri. Liburu asko eta asko idatzi ditu politika, filosofia eta erlijioaren inguruan.

Aurkezten dugun liburu honetan balioetan oinarritutako hezkuntzaren alde jotzen du; gizarte honetan gailentzen ari dira "disbalioak" edo balio negatiboak, zenbait esparrutan ez baitira ulertzen ongiaren eta gaizkiaren nozioak eta etengabe urratzen da gizarte justizia. Eta horren aurrean, balioetan oinarritutako hezkuntzaren alde azaltzen da egilea.

Carlos Diazek ondo oinarritutako prestakuntza ematea du helburu, filosofia-antropologia pertsonalista eta erkidegokoa oinarri hartuta, eta eskaintzen du, batetik, hausnarketa sozio-politiko argia, bestetik, pertsonaren garapen osoaren ikuspegia eta, azkenik, balioen eskala bat, azalduta eta arrazoiatua, irakasleak eskolan landu ditzan.

Baditu hainbat alderdi interesgarriak iruditu zaizkigunak; horietako bat edo beste aipatzearen, esan dezagun badela kapitulu bat, ekintzak ondo neurtzeko edo balioesteko ditugun zailtasunen ingurukoa; oso interesgarria da kapitulu hori beren buruarentzat erreferentzia bila dabilzanentzat edo haur eta gazteak orientatu behar dituzten hezitzaileentzat.

Liburu aberasgarria iruditu zaigu, eta argigarria ere bai. Baliozko ekarpenak egiten dizkie hezitzaileei.

Nerea Alzola Maiztegi
Mondragon Unibertsitateko Humanitate
eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea



Amaiurko eskolan (2006).

Esan dute

“ Lucía: Oye, papá, Bush y Aznar, ¿alguna vez fueron niños? No me lo puedo imaginar.
Padre: Supongo que sí.
Lucía: Ah, ya lo entiendo, es que hay personas que, cuando llegan a cierta edad, dejan de haber sido niños.

Una niña ante los bombardeos de Bagdad, Abril de 2003

Alba Rico, S. (2007).
Leer con niños (19. or.).
Barcelona:
Random House Mondadori.

“ Para nosotros (que siempre vamos por ahí ejerciendo de gallegos o de andaluces, de hombres o de mujeres, de ricos o de pobres) la ciudadanía es algo excepcional. Y desde luego que la ciudadanía ha sido la aventura más excepcional que ha emprendido la humanidad. Sin embargo, hace ya muchos siglos que los seres humanos vivimos comprometidos con esa excepción. Aunque a veces se nos olvida su carácter excepcional y nos

parece que la condición ciudadana es la cosa más normal del mundo.

Fernández Liria, C.;
Fernández Liria, P.;
Alegre Zahonero, L. (2007).
Educación para la ciudadanía. Democracia, Capitalismo y Estado de Derecho (77. or.).
Madrid: Akal.

“ Euskaraz egiteak hiztuna euskaldun egiten du, giza talde jakin baten partaide. Ideia erakargarria da, dudarik ez; ikusi beharko dugu ideia bat baino gehiago izango den, alegia, euskara ikasten dutenak “gu” taldearen barruan ikusten dituzten aurreko euskaldunek, edo, besterik gabe, “gure hizkuntza” ikasteko begirunea izan duten kanpotarrak izaten jarraituko duten. Ikusi beharko da euskara jakiteak eta erabiltzeak etorkin euskaldunei eskainiko dizkien autoktono euskaldunei eskaintzen dizkien aukera berberak, eskubide guztiak dauzkan hiritartasunaren barruan.

Barquín, A. (2008).
Inmigrazioa eta euskara. Jakin 165, 82. or.

“ Hay que enseñar a interpretarla porque la televisión no puede caer ingenuamente en manos de un niño.

Cuadernos de Pedagogía (2008).
Entrevista a Jose M^a del Moral.
Cuadernos de Pedagogía 379, 45. or.

“ Los cambios actuales son tan arrolladores que nada puede permanecer impasible.

Cuadernos de Pedagogía (2008).
Entrevista a Jose M^a del Moral.
Cuadernos de Pedagogía 379, 47. or.

“ Arte hezkuntzako klaseak errazenak direla pentsatzeak eta bertara lasaitzera joan gaitzkeela sinistek zeharo aldentzen gaitu fundamentuzko edozein planteamendu eta helburutik: ea berriro ere esan beharra daukagun artea ez dela eskulan huts edo hutsala.

Vivas, I. (2007).
Arte hezkuntza utopiaren eta pragmatismoaren artean. Tantak 38, 87. or.

“ Ahora el niño desde el principio es considerado como parte del hecho social, como un todo, y también como sujeto de relaciones sociales. Desde su nacimiento participa en la vida social, de la que forma parte. El hecho social no es considerado como una cosa exterior, como una fuerza ajena, que ejerce una presión sobre el niño y que impone las formas sociales, o sea, objetivas de pensar.

Fichtner, B. (2008).
Un modelo de desarrollo: el gesto de señalar.
Infancia 109, 5. or.

“ Se trata de que no haya palabras en cada imagen, que el niño la nombre, y ahí todo cambia. Cuando tienes una fotografía de unos zapatos y pones “zapatos” en el pie de foto estás estropeando la capacidad imaginativa del niño, porque en ese caso tú, como adulto, si el niño dice “mocasines”, “botas”, “los zapatos de papá”, vas a contestarle: “no, zapatos”, porque está escrito “zapatos”. Para mí, eso limita mucho la interpretación de una imagen. Sin embargo, si pones la imagen, en cuanto dejas un espacio libre, el niño va a construir su propio mundo.

Bloc (2008).
Entrevista a Thierry Magnier.
Bloc 1, 45. or.

“ ¡Es que no acierto a comprender por qué hay tan poca fotografía en la literatura infantil! La fotografía es una técnica muy adecuada para la mente de los niños, para la comprensión tanto de lo posible como de lo imposible.

Bloc (2008).
Entrevista a Pere Hormiguera.
Bloc 1, 5. or.

“ Es bueno compaginar el pensamiento riguroso y la libre creatividad.

García, P. (2008).
Campus 61, 38. or.

“ Una escuela inclusiva es aquella que adecua el “menú general” para que todo el mundo pueda comerlo, para que sea un currículum común... En una escuela inclusiva, detrás de cómo y de qué se enseña hay unos determinados valores que configuran una forma muy determinada de vivir.

Pujolas, P. (2004).
Aprender juntos alumnos diferentes. Los equipos de aprendizaje cooperativo en el aula (20. or.).
Barcelona: Eumo-Octaedro.

“ Cada día, el hecho de ir a la escuela debería ser –para todos los que acuden a ella, bien sea para aprender, bien para enseñar, o bien para desempeñar cualquier otra función– una satisfacción (y no una carga penosa o amenaza), una aventura productiva en la que y de la que todos pueden aprender.

Pujolas, P. (2004).
Aprender juntos alumnos diferentes. Los equipos de aprendizaje cooperativo en el aula (31. or.).
Barcelona: Eumo-Octaedro.

“ [...] he situado la escuela en el seno de un colectivo más amplio que forma una especie de red –una comunidad más amplia– junto con otros sistemas con los que está relacionada [...] la escuela se tiene que considerar estrechamente ligada a otras personas, organizaciones y servicios de la comunidad: las familias, los servicios sociales y sanitarios, los servicios psicopedagógicos públicos y privados, los centros de ocio, las entidades deportivas, el centro abierto del barrio, entidades de voluntariado, etc.

Pujolas, P. (2004).
Aprender juntos alumnos diferentes. Los equipos de aprendizaje cooperativo en el aula (42. or.).
Barcelona: Eumo-Octaedro.

“ Muchos comportamientos destructivos en niños y adolescentes tienen su origen en esta necesidad de expiación: van buscando el castigo.

Cristóbal, R. (2007). *Fundamentos del ser humano: una psicología para educadores* (151. or.). Arrasate: Mondragon Unibertsitateko Zerbitzu Editoriala.

“ Para nosotros mirar a la infancia es también vincularnos a ella desde la certeza y desde la confianza profunda hacia cada niño y niña, es al fin reconocer su fuerte deseo de crecer y aprender y desde este reconocimiento ajustar nuestras intervenciones, dotándolas de altas dosis de sensibilidad para poder conectar con su historia que no deja de ser también su memoria.

Equipo de la Escuela El Marinet (2008). *Propuestas pedagógicas y puntos suspensivos...* *Aula de infantil 43*, 19. or.

“ El paralelismo con estos dos aprendizajes, andar y hablar, que los niños hacen de forma natural, nos ayuda a analizar cuál puede ser nuestra actitud frente al aprendizaje de la lectura y la escritura: la inmersión en el mundo cultural, lleno de estos códigos; su utilización libre, respetando sus fases de aprendizaje; el valor comunicativo de cualquier incursión en estos aprendizajes; la motivación y la curiosidad por descubrir y experimentar con estos estímulos, con diversidad de textos, recursos lingüísticos...

De la Cruz, Pinazo, J. (2008). *¿Escribir y leer en educación infantil? Modelo de comunicación a las familias.* *Aula de infantil 43*, 32. or.

“ Otros contenidos como los referidos a las relaciones matemáticas: elementos, relaciones y medidas han cambiado de lugar, se han sacado del área de comunicación y representación para vincularlos al área de conocimiento del entorno dándoles un tratamiento no sólo desde la perspectiva de los lenguajes, como código, sino también considerando las relaciones lógicas y matemáticas que entre los elementos del medio pueden establecerse.

Viera, A. eta Pérez Esteve, P. (2008). *El currículo LOE de educación infantil ¿Qué novedades aporta?* *Aula de infantil 43*, 38. or.

“ En el aula van apareciendo diferentes situaciones emergentes a partir de las diversas interacciones. La maestra debe estar atenta a lo que aflora para provocarlo, enriquecerlo y acompañarlo explícitamente.

Anguita, M. (2008). *Yo de mayor quiero ir a Honolulu.* *Aula de infantil 41*, 10. or.

“ Las niñas y los niños de nuestras clases son unos recién llegados a la vida y la miran con los mismos ojos inquietos, sorprendidos y deseosos de entender con los que el extranjero mira la realidad que tiene a su alrededor.

Feixes, D. (2008). *¿Dónde está Paula?* *Aula de infantil 41*, 17. or.

“ Cuando hay voz empieza la literatura.

Neira Cruz, X. (2008). *Dejar oír.* *Educación y Biblioteca 164*, 19. or.

“ [...] los maestros debemos gastar energía y creatividad en buscar la manera de incluir a las familias en la conversación que se teje en el aula cuando las criaturas buscan una respuesta a su necesidad de orientarse. Esta inclusión de las familias exige un trabajo en dos sentidos: buscar la manera que a las familias les llegue información del mundo que tiene la vida del aula y buscar en el aula la manera de hacer un lugar a las voces de las familias.

Gallego, C. (2008). *El papel de las familias en el proceso didáctico.* *Aula de infantil 41*, 31. or.

“ La situación de nuestra escuela es poco estable, siempre hay cosas por resolver y eso hace que busquemos soluciones hasta debajo de las piedras. A lo que podrían llamarse problemas, para nosotros son retos. Antes de la queja debe venir la resolución.

Miró, C. (2008). *La hora de la salida: las largas esperas de algunos niños.* *Aula de infantil 41*, 43. or.

“ Por tanto, a partir del análisis realizado en nuestro estudio, consideramos que hablar de conflictos interculturales en escuelas donde realmente la diversidad cultural y lingüística se une a una diversidad social caracterizada por los peligros de la exclusión y el riesgo social, no es en modo alguno muy acertado. Entonces, sería posible, incluso comenzar a hablar de conflictos intersocioculturales y no de conflictos interculturales como concepto aglutinador de la multiplicidad de significados y variables que inciden en su configuración.

Leiva, J.J. (2008). *Educación intercultural y conflicto: La visión del profesorado.* *Aula 171*, 37. or.

“ Educar para otro mundo posible es dar visibilidad a lo que ha sido ocultado para oprimir, es dar voz a los que no son escuchados. La lucha feminista, el movimiento ecológico, el movimiento zapatista, el movimiento de los sin tierra y otros han convertido en visible lo que los siglos de opresión habían invisibilizado.

Gadotti, M. (2008). *Nuevas perspectivas para la educación.* *Aula 171*, 71-72. orr.

“ [...] la educación debería concretarse en una visión más comunitaria, flexible, diversificada, plural y compleja [...] y para ello es preciso fomentar la cultura de la participación, la capacidad de decisión y el acuerdo de soluciones que sean significativas para la comunidad; pues sólo posibilitando que sean las personas que la integran las que se impliquen en el diseño y en las actuaciones que mejoren su realidad, ésta podrá ser construida de un modo más coherente y significativo.

Gradaille, R. eta Caballo, M.B. (2008). *El papel de la educación social en la articulación de proyectos educativos.* *Aula 171*, 74. or.

“ Hezkuntza formalaren eta hezkuntza ez formalaren arteko banaketa fisiko zurrunarekin hautsi beharra ikusten da gero eta gehiago, sortzen diren beharrei ikastetxeen dinamikatik bertatik erantzun integralak emateko.

Hik hasi (2008). *Premia berriei, erantzun berriak.* *Hik hasi 128*, 9. or.

“ Irakasle-ikasketa berrien diseinuaren dekretua atera da, baina gauza asko lotu gabe utzi ditu dekretuak. Marko nagusia definitu dute, baina besterik ez, barruko paisaia margotzeko dago. Hori arriskutsua da, unibertsitateko betiko eredu ahalik eta gutxien aldatuta aplikatuz dezakegulako, gure artean ez haserretzeko eta bakoitzak ematen duena ematen jarraitzeko. Baina pena izango litzateke aukera galtzea, ikasketak nahi dugun eran diseina ditzakegulako eta irakasle berrien profila, curriculumaren eta gaitasunen arabera diseina dezakegulako.

Hik hasi (2008).
Irene Lopez-Goñiri
elkarriketa.
Hik hasi 128, 21. or.

“ Balio gizatarrak indartzeko beharra dago: duintasuna, elkartasuna, ardura, errespetua, demokrazia, lana eta hiritarren formazioa indarkeria amaitu dadin... Eta batez ere, askatzailea izango den formazioa eskaini behar da. Eta balio horiek eredu eta praktikaren bidez adierazi behar dira, teoriak soilik ez baitu zentzu handirik.

Chacón Arteaga, N. (2008).
Balioek eta moralak arreta berezia eskatzen dute pertsonen prestakuntza prozesuetan.
Hik hasi 128, 30. or.

“ Una función preciosa que podrían asumir los institutores sería la de ayudar a los niños a detectar sus emociones y descifrar los escenarios fantasmáticos a los que esas emociones responden.

Cristóbal, R. (2007).
Fundamentos del ser humano: una psicología para educadores (141. or.).
Arrasate:
Mondragón Unibertsitateko Zerbitzu Editoriala.

“ Un narrador muy poderoso que fascina al lector con una lúcida reflexión sobre el proceso creativo. Sus breves cuentos filosóficos están narrados por medio de metáforas creíbles desde una perspectiva infantil que fascina al lector. La humanidad y la universalidad son las características más importantes de sus obras.

(2008). *Imaginaria* 229.

“ Me animé a escribir con la pretensión de ofrecer a los jóvenes no sólo una ficción basada en hechos históricos, sino también unos puntos de reflexión sobre las causas, el sentido y las consecuencias de las guerras.

CLIJ (2008).
Entrevista a
Miren Agur Meabe.
CLIJ 214, 48. or.

“ La obra ha dejado de responder a una búsqueda estética o necesidad comunicativa, y, actualmente, es el resultado de un “trabajo alimenticio”.

Puerta Leisse, G. (2008).
Daños colaterales a la literatura infantil (III).
El compromiso como mercancía.
Educación y Biblioteca 164, 37. or.

“ Nos parece importante que la narración oral recupere su lugar de privilegio en las relaciones entre adultos y niños.

Martinez, A.M. eta Pérez, J.I. (2008).
Viejos cuentos para los más jóvenes (II).
10 propuestas para contar con los cuentos populares en las aulas.
CLIJ 212, 60. or.

“ La modalidad álbum es la que considero más interesante para la educación literaria de los primeros lectores.

Tejerina Lobo, I. (2008).
Un modelo de análisis del álbum.
CLIJ 215, 44. or.



Nora Salbótxen argazkia (2007).



Baserrietan orakundeko eskean. Amaiur (2007).

Landa-eremuko eskolak, eskola txikiak

“Eskola txikiak, bospasei ikasgela edo gutxiago dutenak, leku atseginak dira oraindik ere, aukera ematen baitute elkar ezagutzeko eta elkar aintzat hartzeko, eztabaidarako gune ere badira eta ikasleak ezagutzea ahalbidetzen dute” (C. Freinet).

Landa-eremuari buruzko hausnarketa sakon batean murgiltzeak nahitaez behar du izan, lehenik eta behin, bukolismo eta irudi konstunbristatik haratago eraman-go gaituen ariketa. Produkzio eta kontsumo eredu neoliberalen garaia bizi dugu, non globalizazioak, ekonomiaz gain, bizitzako esparru guztietan eragiten baitu; eta eskola bera ere ez da homogeneizazio saiakera horretatik salbu.

Statu quo honetan, hiria eta desarrollismoa lehenesten dira, lehenetsi herriaren eta ingurugiroarekiko bizimodu orekatu eta begirunezkoen aurrean; hizkuntza “modernoak” aitatxi-amatxien hiztegi aberatsaren aldean; abiadura, asfaltoa eta erakusleihoak haurren plazako jolasen aurrean.

Egun, kalitatea, bikaintasuna, eraginkortasuna, garapena... *zenbatu eta neurtzen* dira, horren ondorioz, ehuneko exkaxeko geratzen gara txikiok: eskola txikiak, herri txikiak, gutxien taldeak, eta, oro har, irabazi erraldoiekin –sikiera balekoekin- deus gutxi ikusteko dugun horiek guztiak.

Eskola eredu urbanoak orokortzen saiatzen direla, eskola txikien izatea bera estaltzen dutela, ukatzen dutela, deusezen saiatzen direla, gure zeregina da “hor” gaudela oihukatzea; finean, gure izatea bera aldarrikatzea.

Jakingarriak 64 monografiko berri honetan, landa-eremuko eskolen gaiari heldu eta oraindik orain hain gutxi jorratu den eskola eredu honen inguruko zertzelada orokor zenbait ekarri nahi izan ditugu; kokapena, ezauzgarriak, esperientziak eta etorkizunerako erronkak.

Izena daukanak izana ere ba omen duenean, bere izena erabakitzeke duten eskolez ariko gara hemen; eskola osagabea, landa-eremuko, txikia, adin askotari-koentzako, unitarioa,... gure herrietan ESKOLA, bera, bakarra, herritar orenen topagune.

Edozein giza taldetan bezalaxe, adin, behar, interes, autonomi maila, gaitasun eta muga, garapen kognitibo, eta abarren ezberdintasunek topo egin, aitortu, bilatu eta aurkitzearekin zerikusia duten eskoletaz ariko gara, elkarrekin eta aniztasunean ikasi eta haztearen ekintza magikoa ematen deneko horietaz.

Nora Salbotx Alegria

Euskal Herriko herri eskolak

Xabier Ballarena Iturburua

Oronozko herri eskolako zuzendaria eta Baztango eta Urdazubi-Zugarramurdiko herrietako eskolen koordinadorea

Gure eskolen inguruan idazterakoan, lehendabizi hainbat kontzeptu argitu behar ditugu. Euskal Herriko hiru administrazioek kategorizazio desberdinak erabiltzen dituzte gu (gure eskolak) sailkatzeko orduan. Nafarroa Garaiko Hezkuntza Departamentuak osagabeko eskolak eta landa-eremuko eskolak direla adierazten du; Gasteizko Gobernuaren aginpide-esparruko ikastetxetarako eskola txikiak izena erabiltzen da; Euskal Herri kontinentalean kokatzen diren ikastetxeak l'Education Nationalek "ecole rural" deitzen die.

Ikusten duzuen definizio aunitz kontzeptu bakar baten antzekatzea. Lan honekin, gure ekarpena mahai gainean paratuta, korapilo hau askatzen saiatuko gara. Hasteko, gure eskolek dituzten puntu komunak jorratuko ditugu. Hiru zutabe dira nagusi: Izaera administratiboa, Kokapen geografikoa, Tamaina.

Izaera administratiboa

Eskola txikiak/osabageak eskola publikoak dira, hots, hezkuntza-administrazio publiko baten menpe daude, eta honek hartzen ditu bere baitan hainbat betebeharrak: eskolen kudeaketa administratiboa (maistra-maisuen ingurukoak: sartzeko-bideak, soldatak, formazioa...; egoitza eta materialen hornidura...; ikasleen ingurukoak: admisioa, laguntzak...), curriculumaren inguruko aferak (planen ezarpenak, eduki eta helburuen kudeaketa...) eta kontrola (arestian aipatutakoak eskoletako

zuzendaritza taldeak betetzen dituen ala ez jakiteko).

Kokapen geografikoa

Kokapenari dagokionez, landa-eremuko eskolak gurea erratea ez da hain erraza. Egun kontzeptu hau bere ezaugarri nagusiak galtzen ari dela azpimarratzera auzartzen gara. Landa-eremua hitzak nekazaritza eta abeltzaintzarekin lotutako lurralde baten aitzinean gaudela adierazten du. Kontzeptu honen barrenean daude bertze hainbat suposizio ere (betiere "normaltasunetik" abiatuta, hots, nagusi den hiri-kulturaren ikuspuntutik): egoera sozio-ekonomiko-kultural eskasa, matxismoa, familia-eredu tradizionala, teknologia berriekiko hurbiltzea murrizta, eta abar. Orain dela hamarkadaren bat, beharbada definizio honen barrenean sartzen ginen, baina gaur egun ematen ari diren aldaketa sozialak ikusita, zaila egiten zaigu parametro horietan kokatzea.

Ideia nagusia argituta, azter dezagun hiru administrazioek zein ezaugarri hartzen dituzten kontuan kokapenari dagokionez.

EAEn erabiltzen den parametro nagusia kopurua da. Eskola txikiak izateko baldintzen artean herri batean eskola, publikoa, bakarra izatea dago. Iruñeko hezkuntza administrazioak ez du, oraindik, horrelako baldintzarik jartzen, eta landa-eremuko eskolen artean sartzen dira hala Luzaide nola Lesaka (egoera sozio-

ekonomiko-kultural arrunt desberdinak dituzten herriak).

Gure aldetik, eta ezaugarri komuna bilatu arren, hiri-herria definizioak kontrajartzea interesatzen zaigu, betiere abstrakzio mailan murgiltzeak dakarren ondorio guzietan. Zer adierazi nahi dugu herrikoak gurea errandakoa? Alde batetik giza talde mugatu, kopuru aldetik, batean bizi gurea. Honen arabera, gure eskola komunitateak ere partaide gutxi ditu.

Abantailak: giza harreman handiak edo sakonagoak, herri administrazioarekiko kontaktu handiagoak, irakaskuntza-ikaskuntza prozesua arrunt pertsonala izan ohi da, baliabideak kudeatzeko erraztasunak...

Desabantailak: harremanak hain sendoak izaki, herriko arazoak eta eskolakoak nahasten dira, hezkuntza-administrazioarekiko arazo handiak, administrazio-kudeaketarako lan eskerga...

Tamaina

Ikastetxearen tamaina ere ezaugarri esanguratsua da gure eskolak definitzeko orduan. Tamaina diogunean ikasle taldeez ari gara, hots, gela bakoitzean zenbat ikasle sartzen diren eta horren ondorioz ikastetxean sortzen den gela kopurua. Ikasle kopuruen datua eta honek dakarren gela kopururako ratioaren parametro erabili ohi da. Parametro hau aldakorra izan da azken urte hauetan, eta zehazgabetasunean mugitu izan gara taldekatzeak egiterakoan.

Ratioen kontu hau ere errebendikazio historikotzat jo dezakegu eta administrazioak, poliki-poliki, definitzen joan dira. Adibide moduan, Nafarroa Garaikoa jar dezakegu. 2006/2007 ikasturtean hainbat sindikatuk eta Hezkuntza Departamentuak sinatutako Hezkuntza Hobeakuntzarako Ituna izenekoan agertzen dira lehendabiziko aldiz gure gisako eskolak kudeatzeko ratioak (osagabeko eskolak deitzen diete haiek).

Modu honetan zehazten dira gure ikastaldeak sortzeko zifrak: Haur Hezkuntzan bi adin ezberdinetarako taldea osatzeko 15 ikasle behar dira; Haur Hezkuntza osoa hartzen badugu (hiru adinak elkarrekin), 14rainoko ratioa dugu. Lehen Hezkuntzari dagokionez, ziklo bateko ikasleen kopurua 15ekoa izanen da eta hiru adin baino gehiago izanez gero, 14ko kopurua ontzat ematen da. Ikusten denez, ez dira kontuan hartzen talde bakarretako eskolak, hau da, talde berean adin guztiak elkartzen

Gobernuaren aginpide-esparruko ikastetxetarako eskola txikiak izena erabiltzen da; Euskal Herri kontinentalean kokatzen diren ikastetxeak l'Education Nationalek "ecole rural" deitzen die

dituzten ikastaldeak. EAEn erabiltzen diren parametroak antzekoak dira.

Ratioak kontuan hartuz gero, zenbat ikastalde behar ditugu eskola txikia/osagabeko eskola izenpean lan egiteko? Hemen ere parametro desberdinak erabiltzen dira. Gipuzkoan, Araban eta Bizkaian 6-7 gelako ikastetxeak, Nafarroa Garaian, berriz, ziklo bakoitzeko gela bakarra denean deitzen zaio osagabea eskolari.

Hala eta guztiz ere, arestian aipatutako hitzarmenari begiratura, eskola txikietarako giza baliabideak esleitzeko jarri zen eskualdekako zonifikazio proposamenarekin eskola "handiak" ere sartu dira.

Ondorioak

Baditugu, beraz, hiru zutabe gure gisako eskolak definitzen hasteko: publikotasuna, herrikoa izatea eta neurri txikiak.

Halere, argudio gehiago beharko ditugu multzo honetan hainbat eskola sartzeko. Garrantzitsuena: izaera honetan sartzeko nahia, edo beharra, izatea. Badakigu argudio eskasa dela objektibotasun aldetik, baina derigorrezkoa hezkuntzan ari garenetik abiatuta non faktore aunitz ezin kuantifikatu ditugun. Horrela, bada, azpimarratzekoa da EAEn sortzen dena. Badira eskolak jarri ditugun parametro definitzaile hauetan sartuko liratekeenak baina ez dutenak haien burua eskola txiki moduan jartzea nahi (Arabako eskolak adibidez). Kontrako ere gertatzen zaigu Nafarroan; gela kopuru handiko herrietako eskolak, hainbat faktore direla medio, landa-eremukoak bezala lan egin nahi dutenak (Beraiko Rikardo Baroja eskola, adibidez).

Hurbilketa kuantitatiboa: datu orokorrak


Hurbilketa kuantitatiboari jarraiki, zifren dantzari ekinen diogu hurrengo lerroetan. Hasteko, erran behar dugu oraindik datu eskasia dugula. Nafarroa Garaiko administrazioetik lortu izan ditugu eta EAETik ere bai, halere, datu-bilketa sistematizatuagoa eta sakonagoa egin behar dela uste dugu. Ditugun datuak kontrastatu gabeak dira, eta azterketa kualitatibo bat egiteko derrigorrezko-tzat jotzen dugu berauek errealak izatea; hala ere, azaleko, eta hasierako, analisi hau egiteko nahikoak direlakoan gaude. Ezin ahanzi Lapurdi, Zuberoa eta Behe Nafarroako daturik ezin lortuz aritu garela, eta, beraz, horren inguruan ezer gutxi erran dezakegula.

a) Datu orokorrak

Nafarroako Gobernuaren arabera, hauek dira landa-eremuko eskolak, eskola txikiak:

- Unitate bakarrek (unitarioak): 14 eskola
- 2-6 unitatekoak: 51 eskola
- 7tik goiti: 14 eskola

Denetara: 79 eskola



1.irudia: Nafarroako mapa

Gipuzkoa eta Bizkaiko eskola txikien elkarteak emandako datuak honakoak dira:

Gipuzkoari dagokionez, hauxe dugu banaketa:


- Unitate bakarrek 3 eskola
- 2-6 unitatekoak: 23 eskola
- Handiagorik ez dago.

Denetara: 26 eskola txiki ditugu.



2.irudia: Gipuzkoako mapa

Bizkaian unitate bakarrek eskolarik ez dago. 2 eta 6 unitate bitarteko 22 eta 7 unitate baino gehiagoko bertz 6. Denetara 28 eskola txiki ditugu.



3.irudia: Bizkaiko mapa

Beraz, eskuarte ditugun datuen arabera (Euskal Herri kontinentala eta Arabako lurraldea kontutan hartu gabe), 133 eskola txiki edo landa-eremuko ditugu. Ikasleei dagokienez:

- Gipuzkoan 970 ikasle.
- Bizkaian 1.875.
- Nafarroan 3.039.

Denetara: 5.885 ikasle.

Kopuru aldetik datu izugarri handia benetan, gehienbat Nafarroan (Iruñeko irakaskuntzako publikoko ikasleen kopurua 8.539 dela kontuan hartzen badugu).

b) Datu zehatzak

Azaleko azterketa egin ondotik, interesgarria deritzogu datu hauen zehaztapena egiteari. Has gaitzen EAeko eskoletatik. Urteak dira eskola txikiak izenpean koordinaketa egiten ari direla lurralde hauetan eta hainbat ezaugarri komunak dituzte:

- Eskola guztiak D ereduak dira.
- Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntzako eskolak dira (batzuetan Haur Hezkuntzako lehen zikloa ere biltzen dute).
- Lurraldeka eta zonaldeka daude antolatuta.

Bizkaiko lurraldean horrela daude antolatuturik:


- Artzentales, Turtzioz, La Arboleda eta Gordexola.
- Arrankudiaga, Zeberio, Artea, Areatza, Zeanuri eta Dima.
- Otxandio, Atxondo eta Mallabia.
- Etxebarria, Berriatua, Amoroto, Aulesti, Ispaster eta Munitibar.
- Busturia, Gautegez-Arteaga eta Muxika.
- Bakio, Lemoiz, Gatika, Laukiz, Urduliz eta Laukizar.

Gipuzkoan, berriz, bi eskualdetan banatzen dira eskola txikiak:

- **Tolosako** taldeak eskola hauek biltzen ditu: Abaltzisketa, Aduna, Albiztur, Alkiza, Altzo, Berastegi, Berrobi, Bidegoian, Gabiria, Ikaztegieta, Lizartza, Olaberria, Zerain eta Zizurkil.
- **Zarauzko** taldeak berriz: Aizarnazabal, Aizarna, Oikia, Angiozar, Igeldo, Errezil, Aia, Arroa, Zubieta, Aginaga, Ereñozu eta Aia.

Hiri-herria definizioak kontrajartzea interesatzen zaigu.

Zer adierazi nahi dugu herrikoak garela errandakoan? Alde batetik giza talde mugatu, kopuru aldetik, batean bizi garela. Honen arabera, gure eskola komunitateak ere partalde gutxi ditu



4. irudia: Gipuzkoako eskualdeak


EAEn ematen ari den lanaren inguruan hainbat datu ditugu. Eusko Jaurlaritzaren barrenean eskola txikiak laguntzeko bulegoa dago eta baita koordinatzaileak (lagun bat Gipuzkoarako eta bertzea Bizkaierako, azken hau lanaldi erdiarekin) ere. Bestalde, eskola txikien lantaldeak hainbat urte darama bere proiektuak egiten helburu orokor baten inguruan, eskola txikien garrantzia azpimarratzea eta horien arazoak plazaratzea. Garrantzia handia ematen zaio formazioari, eta ikasturte honetan arlo hori indartzen ari dira.

Argibide gehiago ondoko webgunean aurkituko duzue: www.eskolatxikiak.org

Ratioak kontuan hartuz gero, parametro desberdina erabiltzen dira. Gipuzkoan, Araban eta Bizkaietan 6-7 gelako ikastetxeak, Nafarroa Garaian, berriz, ziklo bakoitzeko gela bakarra denean deitzen zaio osagabea eskolari

Nafarroa Garaikoaren bilakaera bestelakoa izan da. Arestian aipatu bezala, ikasturte honetatik (2007/2008) aitzin hasi da, esplizituki, hezkuntza departamentua landa-eremuko eskolak kontuan hartzen. Orain arte emandako urratsak arrunt motzak izan dira eta banaketa edo eskolen arteko antolaketarekin hasi da bertzerik gabe. Haatik, horrela banatzen dira landa-eremuko eskolak:

- Arraioz, Amaiur, Ziga, Oronoz, Azpilkueta, Arizkun, Erratzu, Irurita, Gartzain, Almandoz eta -Urdazubi-Zugarramurdi.
- Beintza-Labaien, Saldias, Eratsun, Legasa, NARBARTe, Ituren, Areso, Betelu, Goizueta eta Jauntsarats.
- Arantza, Igantzi, Lesaka, Etxalar eta Sunbilla.
- Erronkari eta Izaba.
- Otsagi eta Ezkarotze.
- Garralda, Auritz, Aurizberri, Erro, Luzaide, Urrotzeta Zubiri.
- Arbizu, Etxarri Aranatz, Iturmendi, Lakuntza, Olazti eta Urdiain.
- Ledea, Zare, Esa, Oibar, Kaseda, Irunberri eta Elo.
- Zirauki, Mañeru, Añorbe, Obanos, Barasoain, Berbintzana, Mendigorria eta Miranda Arga.
- Figarol, Melida, Murillo el Fruto, Arrada, Santakara, Beire, Pitillas eta Uxue.
- Abartzuza, Allo, Antzin, Arruitz, Lezaun, Murieta, Oteitza, Carcar, Deikaztelu, Sartaguda, Sesma, Villatuerta eta Zudairi.
- Eskualdetan sartu gabe ditugu Fontellas eta Monteagudoko eskolak.



5. Irudia: Nafarroa Garaiko eskualdeak

Ezaugarriak:

- D eta A ereduak ezarrita daude eskola guztietan, bitan izan ezik (Fontellas eta Monteagudok gaztelazko ereduak dute soilik). Jakina da Nafarroako Vasconcearen Legea dela eta, eskualde erdaldunetan D eredurik ezin dela jarri irakaskuntza publikoan.
- Eskola guztiek Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza dituzte. Eskualde batzuetan ere Haur Hezkuntzako lehendabiziko zikloa jarria da. EAEn ez bezala, baditugu lau eskola DBH badutenak: Arantza, Betelu, Zudaire eta Zugarramurdi hain zuzen ere.

Landa-eremuko eskolei dagokienez, Iruñeko hezkuntza-administrazioak lan eskasa egin du orain arte. Ematen ari diren urratsak hauek dira, betiere goian aipatutako Hezkuntza Hobetzeko Itunaren kariatara datozenak:

- Zonifikazioa egin ondotik, ikasturtez ikasturte, eskualdeko koordinatzaileak izendatzen hasiko dira. Egun bi lanpostu sortu dira; bata Lizarraldean (11. eskualdean) eta Baztanen bertzea (1. eskualdean).

- Hezkuntza Departamentuan landa-eremuko eskolei laguntzeko bulegoa sortu berri dute (urtarrilean egin zuten), eta oraindik bere lehendabiziko urratsak ematen dabil.

Ez dugu, beraz, Gipuzkoan eta Bizkaietan dagoen ohitura, edota antolaketa orokorrik, modu eraginkor eta finakoan gure eskolen inguruan lan egiteko. Hala ere, lehendabiziko pausoak ematen ari gara eta helburuen artean hauek finkatu ditugu:

- Formazioa. Bi ildo markatu ditugu. Bata unibertsitateetako harremanak hasi gure eskolen inguruko berri emateko eta, horren harira, gerora, formazioa plangintza berezituak sortzeko. Bertzea, maistrainuen formazioa autogestioa zuzentzeari eta gatzeari begirakoa.
- Etorkizunari begira gure eskolak kudeatzen dituzten administrazioei eskariak plazaratzeko bideak irekitzea.
- Gizarteari begirako lanari eta erronkei dagokienez, eskola eredu honen berri emateko hainbat jardueren proposamenak egitea eta indartzea.
- Gure eskola-komunitateak dinamizatu, indartu eta euren izaera propioaren kontzientzian sakontzeko proposamenak bildu eta gauzatzea.

Garrantzitsuena: izaera honetan sartzeko nahia, edo beharra, izatea. Horrela, bada, azpimarratzekoa da EAEn sortzen dena. Badira eskolak jarri ditugun parametro definitzaile hauetan sartuko liratekeenak baina ez dutenak haien burua eskola txiki moduan jartzea nahi



Zeraingo eskolan 9 ume daude. Aurten bertan izango da eskola txikien jaia.

Altxor bat dugu esku artean

Lorea Agirre

Gipuzkoako Eskola Txikietako Guraso Elkartearen Koordinadorako idazkaria

Altxor bat, horixe dugu esku artean, eta hori argi izan behar dugu. Gipuzkoako gurasoen mugimenduak lehen motibazio izan zuen a umeak herrian eskolatzea; gerora etorri dira baldintza eta zerbitzu duin eta egoiak eskatzea. Hemendik aurrera, eskola txikien izaera berezia ezagutarazteko eskatzeaz gain, ez zaigu gaizki etorriko sinestea eta aldarrikatzea. izaera berezi horixe bera dela umeak hezteko modu egoki eta aberasgarria. Horixe da eskuetan dugun altxorra. Umeak aniztasunean hezteko aukera, giro goxoan, naturarekin eta nekazaritza munduarekin harremanetan, euskaraz, eta herriko plazan libre.

Etxeko sukaldearen hurrengo urrats naturala da, umearentzat, eskola txikiko gela. Eta beste horrenbeste da herria ere, izan ere eskola txikiaren segida da, eskolaren eta umearen plaza. Umea etxetik herriko eskolara doa, eta eskolatik herrira. Eta ibilbide horrek biziartzten du herria, eta eskola, eta umea. Eskola txikiak eta herri edo auzo txikiak bidea eskutik helduta egitea beste erremediorik ez dute: baten gainbeherak bestearena ekarriko du, eta bestearen biziberritzeak batarena. Horrela izan da, eta horrela izango da gerora ere.

Data pare bat, atzera begira jarrita. 60-70. hamarkadetan herri txikiak husten hasi ziren, eskualdeetako herri handi edo herrialdeetako hiriburuen mesedetan. Eskola txikiei ere beste hainbeste gertatu zitzaizen, hustuz joan zirela umez eta arimaz. Hiriko bizitzak prestigioa

hartu eta hara joan zen etorkizun bila nekazaritza munduko herritar asko. Eta haiekin, eskola txikiek izan zezaketen prestigio urria bidean geratu zen, eta askok hobetsi zuten umeak herri handietako ikastetxeetan eskolatzea.

Gizarte aldaketa horien babesean, 1970eko Espainiako Hezkuntzaren Lege Nagusiak eskola txiki asko desagerrarazi zituen, hain zuzen zortzi unitate baino gutxiagoko eskola asko itxi egin baitziren, umeak eskola handietan pilotzea hobetsi zelako. Eutsi zioten eskolak are abandonatuago geratu ziren.

1990ean hezkuntza sistemaren erreforma ezarri zen, LOGSE delakoaren bitartez. Lege horrek nekazaritza-eskolak edo eskola txikiak hartu zituen kontuan, baina,aldi berean, Oinarrizko Hezkuntza Orokorra 14 urtetik 16ra luzatu zuen, eta lehen hezkuntza 12 urteren mugan finkatu.

Adin aldaketa horrek ekarri zuen eskola txikietan umeak 14 urte bete arte egon beharrean 12 urte arte egon behar izatea. Aldaketa giro horretan eskola txikien beharrak eta izaera kolokan ere jarri ziren, eta horrek bizkortu egin zuen eskola txikien aldeko mugimendua.

Irakasleak 80ko hamarkadako erdialdetik aurrera elkartzen eta pedagogia propioak lantzen hasiak ziren. Hezkuntza munduko korrante nagusiaren kontra, ira-

kasleak izan ziren lehenak eskola txikietan sinesten eta euren onura aldarrikatzen. Adin desberdinetako umeak gela berean bildu beharrak eragozpenak sortu baino pedagogia aurrerakoi bat egitea ahalbidetzen duela esan zuten, alegia, umeak behar duela ikasketen protagonista izan.

Gerora entzuten hasi ziren hainbat teoria pedagogiko aurrerakoen lehen aplikazio praktikoa izan zen hainbat eskola txikitan egin zena. Kontua ez baita ume bakoitzaren dagokion mailako testu liburuarekin bakarkako ikasketara bultzatzea; baizik eta gelako adin aniztasuna bere osotasunean baliatzea, eta umeek elkarri lagunduz, eta nor bere erritmora, baina elkar eraginez, ikastea baizik. Altxor bat genuen esku artean, nahiz denak konaturatu ez.

Herri txikietan irakasleen eta gurasoen arteko harremana oso estua izan da beti, eta gurasoek beti izan dute irakasleenganako sinesmen handia. Irakasleen aldarrikapen horietaz kutsatuta hasten da sortzen gurasoen mugimendua. Lehen helburua xumea zen, umeak herrian eskolatzea. Baina antolatua ahala, eta altxor horretaz jabetu ahala, eskaerak ere sakontzen eta ugartuz joan ziren. Eta gurasoak antolatzen.

Data esanguratsu batera iritsi gara. 1993ko abenduaren 20an, Zizurkilen, 11 herritako guraso elkarteek Gipuzkoako Eskola Txikietako Guraso Elkartearen Koordinadora sortzea erabaki zuten. Lau helburu markatu zituzten, eta estatutueta jaso:

- Eskola publiko euskalduna herrietan mantentzea.
- Herriaren nortasunean eta kulturaren oinarritutako heziketa bultzatzea.
- Herri txikietako eskolen beharrak azaldu eta eskakizunak bideratzea.
- Herri txikien arteko harremanak bultzatzea, eskolaz kanpoko jarduerak oinarri hartuta.

Hamabost urte geroago gaurkotatzen batere ez dute galdu sorrerako lau puntu horiek. Eta oraindik ere horiek dira koordinadoraren lan eremu nagusiak.

11 guraso elkarteko koordinadora haziz joan zen, gero eta elkarte gehiago lotu ahala. Gaur egun 26 herri edo auzotako guraso elkarteak biltzen dira bertan: Angiozar, Elgeta, Gabiria, Zerain, Olaberria, Aizarna, Aizarnazabal, Arroa, Oikia, Itziar, Aginaga, Andatza, Zubietta, Igeldo, Ereñozu, Altzo, Abaltzisketa, Ikaztegieta, Lizartza, Berrobi, Aduna, Albiztur, Alkiza, Zizurkil, Bide-

Etxeko sukaldearen hurrengo urrats naturala da, umearentzat, eskola txikiko gela. Eta beste horrenbeste da herria ere, izan ere eskola txikiaren segida da, eskolaren eta umearen plaza. Umea etxetik herriko eskolara doa, eta eskolatik herrira. Eta ibilbide horrek biziartzten du herria, eta eskola, eta umea. Eskola txikiak eta herri edo auzo txikiak bidea eskutik helduta egitea beste erremediorik ez dute: baten gainbeherak bestearena ekarriko du, eta bestearen biziberritzeak batarena

goian eta Errezil. Gipuzkoako eskola txiki guztiak daude koordinadoran, bat izan ezik. Horietatik hogeita bitan haur hezkuntza eta lehen hezkuntza osoa ematen da; eta gainontzeko lauetan haur hezkuntza eta lehen hezkuntzako lehenengo zikloa.

Guraso elkarte bakoitzak modu autonomoan funtzionatzen du bere eskolan eta bere herrian, baina elkarrekin jarduten dute koordinadoraren bidez. Arazo edo behar komunak sortzen direnean koordinadorak hartu izan du zentzuzko bere gain konpontzeko betebeharrak. Jangelen afera esate batera.

Jangelen afera adierazgarria da. Azken urteetako koordinadoraren lanetako bat hori izan da. Gizartearen eta gurasoen beharrak aldatu diren heinean, ezinbestekoa izan da jangela zerbitzua eskola txiki guztietara zabaltzea. Ume gutxi izateak formula egokituak eska-



Zeraingo eskolan 9 ume daude. Aurten bertan izango da eskola txikien jaia.

tzen ditu. Asko dira dagoeneko eskolan sukaldia dutenak, eskola berri eta berrituetan bereziki; besteetan, berriz, umeek herriko tabernan bazkaltzen dute. Aurten zazpi dira horrela moldatzen direnak.

Goizeko zaintza, eskola hasi aurrekoa, ere hasi da bideratzen hala eskatu duten eskoletan. 0-2 haur eskola berriak ere iritsi dira eskola txiki batzuetara (12 herritara), umeen garraiorako formulak ere egokitu dira bai dirulaguntzetan eta bai garraio moduetan. Eskolaz kanpoko jarduerak ere herri guztietara zabaldu dira, askotan guraso elkartearen eskutik, ludoteka zerbitzua dela, edo eskolaz kanpoko ekintzak direla. Hori guztia umeak herrian eskolatuak izan daitezten gurasoei erraztasunak emateko izan da.

Herri eta eskola handiagoek eskaintzen duten berbera eskaintzera jo dute guraso elkarteek, eta horrenbestez koordinadorak. Nolabait homologatu gara zerbitzuetan eskola handiekin, salbuespenak salbuespen. Badira oraindik beharrak, hala ere: leku falta dela, eraikin zaharrak, irakasleen egonkortzea... Baina bide handia

egin da. Hala ere homologatu beharrak ezin gaitu itsutu. Kalitatea gure berezko berezitasunak ematen baitigu, ez gero eta gehiago gizarteak sortzen dizkigun behar guztiei erantzuteak.

Parte hartzea da arima

Gurasoen edo gizartearen eskakizunei erantzun egokia eman nahian, koordinadoraren lanak aldatuz joan diren bezalaxe, barne antolakuntza ere aldatu izan du. 1993ko talde fundatzaileak zortzi kideko batzordea osatu zuen, bi urtetik behin goitik behera berritzen zena. Baina koordinadora handitu ahala, funtzionamendu berri baten beharra sortu zen. Bi urtetik behin dena hutsetik hasteak asko moteltzen zuen martxa, ikasi orduko utzi behar baitzen. Eta lehendakari iraunkorraren figura sortu zen 2001ean, bost urterako.

Lana ugarituz zihoan. Kontseiluaren Bai Euskarari ziurtagiriaren kanpainan sartu zen koordinakundea, Jaurilaritzarekin ere harremanak finkatzen hasi ziren eta komunikabideetan ere presentzia handitzen. Iaz

Udal batzuen inplikazioa erabatekoa da, eta sinesten dute eskolan inbertitzea herriaren geroan inbertitzea dela; beste muturrean daude eskola ikusten dutenak karga ekonomiko bezala. Koordinadoraren aldetik argi dugu udalak alde izan behar ditugula gure eskolak gara daitezten, eta horrekin batera, herriak

batzordearen egitura berri berritzea erabaki zen. Lehendakari aldaketa aprobetxatuz, 26 guraso elkarteak bost eskualdetan banatu, eta eskualde bakoitzeko ordezkari bana batzordeko kide egitea erabaki zen. Aldaketa hauen guztien funtsa, eraginkor izateaz gainera, gurasoen parte hartzea bultzatzea da, kide sentitu eta izan daitezela. Hori da gure muina eta indarra, gaitortzeko guztiak sobera leudeke inplikazioan kale egingo bagenu.

Zuzendaritza batzordearen hilero ospatutako bilerei, eskualdeka egiten hasi direnak gehitu dizkiegu, eta noski eskola guztietako ordezkariak biltzen dituen batzar nagusiak ere mantendu ditugu. Hauek kurtso hasieran, udaberriaren bueltan eta ekainean egiten dira, azken hau beti Eskola Txiki festa egingo den herrian.

Bide horretan, bestelako lanak ere egin ditu koordinadorak. 2001ean logotipoa eta bere leloa "eskola txikiak bizirik, herri txikiak bizirik" plazaratu zituen. Lau urte geroago, web-orria etorri zen, "www.eskolatxikiak.org" dominioa sortuta. Ereñozuko guraso batek egin zituen biak. Guraso elkarte bakoitzari helbide elektronikoa bat ere sortu zaio, eta aurten weba goitik behera eraberrituko da ahalik eta erabilgarriena eta erakargarriena izan dadin. Oraindik ez duten eskolei ere web bat erakiko zaie. Eskola txiki kantua ofiziala ere berriki aukeratu da. Asteasuko festarako egin zena hartu da, Ber-

nardo Atxagaren hitzak, eta Iñaki Zalakainen musika duena. Lokala ere lortu berri da, Altxoko udalarekin sinatutako hitzarmen baten bidez.

Koordinadoraren beste egitasmo kutunetako bat Eskola Txiki Topaketak dira. Orain lau urte egin ziren lehen aldiz, eta bertan irakasle eta gurasoak biltzen dira eskola txikien inguruko gaiak jorratzeko.

Festa ere mimoz antolatzen da. Aurten hogeigarren aldiz antolatuko da, Zerainean, gure eskola txiki txikienetako baten eskutik. Bederatzi ume eta beste hainbeste gurasoko eskola da. Ikasturteko jarduna ixteko parada egokia da gure festa, edonorentzat irekia bada ere, bereziki gure ume, irakasle eta gurasoen jaia delako. Nolabait, gure altxorraren aldarrikapena egiteko eguna da, elkartzeko, goxatzeko eta existitzen garela eta harro gaudela esateko.

Erakundeekiko lankidetzak ez da beti erraza izaten

Erakunde publikoekin lankidetzan aritzea ere ezinbestekoa da. Udalen parte-hartzea, esate baterako, berebizikoa da. Eskolen berritze lanetan, edo eraikin berrien eskaeran zeresan handia dute. Baina baita herriko gazteentzat etxebizitzak eraikitzeko lanetan ere, horrek eskolarako umeak izatea bermatuko baitu. Egoera oso desberdina da herri batetik bestera. Udal batzuen inplikazioa erabatekoa da, eta sinesten dute eskolan inbertitzea herriaren geroan inbertitzea dela; beste muturrean daude eskola ikusten dutenak karga ekonomiko bezala. Koordinadoraren aldetik argi dugu udalak alde izan behar ditugula gure eskolak gara daitezten, eta horrekin batera, herriak.

Angeles Iztuetak Eusko Jaurilaritzako Hezkuntza sailburutza hartu zuenean, 2001ean, izan zuen koordinakundeak lehen harreman ofiziala Jaurilaritzarekin. 2002ko azaroaren 12an egin zen eskola txikien inguruko lehen bilera. Eta hiru hilabete geroago, Eskola Txiki Batzorde Nagusia eratu zen, 2003ko otsailaren 25ean zehazki.

Bertan honako hauek biltzen ziren: sailburuordetzako ordezkaria, lurralde bakoitzeko Eusko Jaurilaritzako eskola txikietako arduradunak, Nekazaritza sailburutzako ordezkaria, eskola txikietako irakasleen koordinatzaileak, bi irakasle, udaletako ordezkaria eta koordinadorako ordezkariak. Hiru hilabete behin biltzen zen batzorde hau, eta hori baino maizago batzorde teknikoa edo Eskola Txikien Mahaia deitu zena. Honetan Bizkaia



Alkizako eskolako 5 eta 6 urteko umeak.

eta Gipuzkoako irakasleak, sailburutzako ordezkariak eta eskola txikietako teknikariak zeuden. Iztueta beti agertu zen eskola txikien alde, eta hala hitz egin zuen publikoki ere, diskriminazio positiboa egin beharra aipatuz.

Koordinadorak nahi baino urrats motelagoak eman ziren, baina atzera begira jarrita ikusten da Iztueta garaian egin zela aurrerapen handiena administrazio-arekiko harremanei dagokionez. Legegintzaldi hartan izendatu ziren lehenengoz eskola txikietako teknikariak. Eta dirulaguntzak eta zerbitzuak iristen hasi ziren, jangelarena adibidetzat. Eskola txikien berdefinizio bat ere egin genuen, zer ginen eta zer nahi genuen zehaztu zen. Eta komunikabideentzat existitzen hasi ginen.

Gure helburu nagusietako baten lehen urratsa ere orduan eman genuen, eskola txikien status berezia onar ezazaten. Lege, irizpide eta plangintza guztietatik kanpo geratzen ginen eta gara, ume kopuru txikia dugulako.

Horregatik arautegi propio bat behar dugu, berezia, gure salbuespena bere egingo duena, eta plangintzak egiterakoan gure izaera kontutan hartuko duena.

Iztuetak kargua 2005ean utzi geroztik, Batzorde Nagusia eta Mahaia indarra galduz joan dira. Maiztasun finkorik ez dute, eta lehenengo egitura desitxuratu egin da, eta edukiz hustu. Tarteka bilerak egiten dira Jaurlaritzarekin, baina interlokuzio bide egokitzat gure koordinadora baino, eskola publikoetako ikasleen gurasoen elkartearen koordinadora hartzen du. Eta jakina da eskola arrunten beharrak eta gureak ez direla berdinak eta ezin direla berdin tratatu.

Oraindik orain Eusko Jaurlaritzak Euskal Autonomi Erkidegoko Eskola Maparen lehen idazketa aurkeztu du. Bertan "eskola osatu" eta "eskola osatu gabeak" bereizten dira, eta azken atal horretan, besteak beste, eskola txikiak sartzen dituzte. Koordinakundearen eskaera bereizketa hori albora utzi eta "eskola arruntak" eta "eskola txikiak" bereiztea izan da. Izan ere, gu ez bai-

kara osatu gabeak, gu txikiak gara, baina gure eskaintza osoa eta osatzailea da. Ikusteke dago zertan geratuko den.

Etorkizunari begira egitekoak asko dira. Galtzak bete lan dugu. Zerrendatzen hasi eta ezin bukatu. Jaurlaritzarekin harremanak sendotzea, eta gure interlokuzioa aldarrikatzea; eskola txikiak mantentzetik hobetzerantz jotzea; irakasleriaren baldintzak, formazioa eta egonkortzea bultzatzea; eraikinak berritzea eta zerbitzuak bermatzea; guraso guztien inplikazioa eta kidesuna erraztea; guraso eta ume berriak eskolara erakartzea, eta eskola txikien filosofiaren partaide egitea; euskaldun ez diren familiak integratzea eta euskara bere egin dezaten baliabideak jartzea; Euskal Herriko gainontzeko eskola txikiekin harremanak sendotzea... Eta hori guztia, gure izaera eta bihotza bidean galdu gabe, gure altxorak altxor izateari ez diezaion utzi.

Lege, irizpide eta plangintza guztietatik kanpo geratzen ginen eta gara, ume kopuru txikia dugulako. Horregatik arautegi propio bat behar dugu, berezia, gure salbuespena bere egingo duena, eta plangintzak egiterakoan gure izaera kontutan hartuko duena



Alkizako eskolan 2 eta 6 urte bitarteko 24 ume daude.

Sasoikako langileak

Izaskun Salegui Rivera

Alloko "La Cruz" eskolako zuzendaria eta Lizarra aldeko koordinatzailea

Gavarrri eta Jiménez-en arabera, "Sasoikako lanean dabilzan pertsonen artean ere bada oso kategorizazio konplexua: batetik, ibilbide luzean, "urte osoko zikloa" egiten duten familiak dira, eta "gertukoa", hots, aita lanean jarri eta seme-alaben zaintza amaren kontura uzten dutenak.

Kategoria ekonomikoak ere aintzat hartzekoak dira:

1. Horrelako lanetan tradizioa eta eskarmentu luzea duten familia profesionalizatuak, toki horietara erregulartasun batez ohi doazenak.
2. Jornalaren truke ari diren familiak, toki batean (ez beti) errepikatzen dutenak.
3. Zigortutako familiak, sasoiko lana azken baliabidez hartzen dutenak.

Lizarra aldean zainzuriaren produktioa biziki ugaria denez, eskualdekoak ez diren langileak kontratatu behar izaten dira. Tradizioz lan hori Andaluziatik (Jaen eta Granadatik, zehazkiago) etorritako beharginek egiten dute.

Herrietan familia horiek hartzeko etxeak egokitzen dira; maiz, familia bat baino gehiago etxe berean bizi dira eta amak txandaka dabilta, denen umeak zaintzen.

Andaluziako Juntak egoitzak irekitzen ditu gurasoek lanean diharduten bitartean haurrak etxean geratu ahal izan daitezten, baina aita-amek nahiago izaten dute

haurrak beraiekin izatea. Lizarra aldean sasoiko langileen bizi baldintzak arras aldatu dira, lojamendu kontuei dagokiela, batik bat. Suerte ona dutenek kontratua egin zaien herrian bertan topatzen dute etxea, baina beste batzuek hainbat kilometro egin behar izaten dituzte egunero.

Herri den-denetan eskolarik ez dagoenez, ume batzuek Lizarrara joan behar ohi dute, herriko umeak eroateko autobusik bada; bestela, ume batzuk inguruko eskolara doaz eta beste hainbat **ez doaz eskolara**. D.B.H.ko 1go mailatik gorako ikasleak, Lizarrara joan ezean, etxean geratzen dira. Neskek etxeko lanak eta anai-arreba gazteenen zaintzaz arduratzen dira, 16 urte bete arte behinik behin.

Ikastetxean inpaktua bizia izaten da: 30, 40 edo 50 laguneko eskola batera hamabi bat ume berri etorrita, fisionomia erabat aldatzen da. Horiek bete beharreko espazioak, txikiak eskuarki, jarduera-zonak txikitu eta, maiz, beste leku batzuetan jardun behar izaten dute.

Administrazioaren aurreikuspenik eza nabaria izanik, kasu bakanen batean baizik ez dago sostengu-pertsonala (aurten ez dakit zer gertatuko ote den itun/ratio horrekin¹). Aurreneko sasoikako langileak martxoaren hastapenean edo erdialdean iristen dira, eguraldiak agindu legez.

(1) Nafarroako irakaskuntza publikoaren kalitatea hobetzeko 2007-2011 aldirako ituna. NAO 89., 2007-07-20.

Nola iristen diren

- Bakar batzuk (gutxienak) jaiolekuan daude eskolatuak, "herriko eskolako paperak eguneratuta" eta beren materiala dakartza eta dagokien mailan eskolatuak dira eskuarki.
- Beste hainbatek dakarten eskola-ziurtagiriak bakarrik adierazten du umea nondik datorren eta zein mailatan dabilen. Ume horren ikasketa mailaren eta hementxoaren artean alde handia dago.
- Jatorriko ikastegian absentismoa da ezaugarri bereizgarri bat.
- Ikasgela berezietan eskolatu dira ikasle batzuk.
- Jardunaldi jarraituan ohituak daude.
- Lan-eritmo motelean ohituak; etxean ez da lanik egiten.
- Ingelesa LHko 3. mailatik aurrera ematen da.
- Ume horietako batzuk eguna urratu ordurako zainzuri sailera ohi doaz gurasoekin; han, autoan lotan geratzen dira, eskolara joateko ordura arte.
- Arratsaldean, "Maetra, no puedo hasé ná, etoy de-rengao".

Zer egiten dugun

- Orain hemen ahalik eta modu koherenteenean abegi ematen diegu: garatu dugun protokoloak datuak jasotzea eta harrera errazten ditu. Orduz zorroztza dugu, zuzendaritza garaiarekin bat datorrena, idazkari edo administratiborik ez baitugu.
- Egutegia eta elkarbizitzarako arauak entregatu, seme-alabak ikastetxez kanpoko jardueretara ateratzeko baimen agiri bat sinarazi, eta, gutxi gorabehera nola funtzionatzen dugun azaltzen zaie gurasoei.
- Plaza librerik baldin badago, umea bere ikasgelaraino lagundu eta ikaskideak aurkeztuko zaizkio, bertan "txerta" daitezten. Eskola materiala daukatenean, horren berri jakinarazten zaio tutoreari.
- Ingeleseko arean hiru urte beterik dituztenetik integratzen dira umeak, nahiz eta jatorriko ikastetxean horrelakorik ez egon.
- Ikastetxe batzuetan euskarazko eskoletara joaten dira. Gehien-gehienetan G² ereduan dihardute. Maiz gertatzen da ziklo edo maila batean ikasle guztiak A³ eredukoak izatea: ordutegiaren malabarismoak egin behar izaten dira horrelakoetan. Beste horrenbeste jatzoten da ziklo edo maila oso bat erlijio eskolara dolarik, etorri berriak "kultukoak" direnean (baliteke eliza ebanjelistakoak izatea): orduan ikasgaia antolatuta beharra dago.
- Zenbaitetan, etorkin horiek asko izatearren maila ja-

(2) Arlo guztietarako hizkuntza gaztelera izaki.

(3) Arlo guztietarako hizkuntza gaztelera eta "euskaraz" ikasgaia.

Ikastetxean inpaktua

bizia izaten da: 30, 40

edo 50 laguneko eskola batera

hamabi bat ume berri etorrita,

fisionomia erabat aldatzen da

kin batean txertatzeko aukerarik ez dutenean, ez zaie sartzea onartzen Administrazioa sostenguko irakaslerik izendatu eta berariazko ikasgela (are ikastetxetik kanpora ere) egokitu arte, bertan gehiengo eskolatzeko. Eskola gehientsuok ez gaude konforme formula horrekin, etorri berriak atsedendian eta jardueraren batean bakarrik dabilta harremanetan gainerako ikasleekin eta horrek, bistan da, giro ezatsegina sortzen du.

- Kanpo-ebaluazioan⁴ parte hartzen dute baldin eta beraiek diren ikasgela lagina osatzeko hautatzen bada.

Hezkuntza Departamentuak ez du fenomeno honetaz inolako azterketarik egin, edo, egin badu, ez du argitara eman, gutxienez. Akaso sasoikako ikasle kopuruak, ikasleria osoaren aldean, kopuru adierazgarria osatzen ez duelako, edo fenomeno hau bizi duten eskolek, guztien aldean, kopuru adierazgarria osatzen ez duelako, edo behin-behineko egoera izango zela uste zutelako (nahiz eta hogeitaz gauza bera errepikatu den...). Hutsaren pareko aurrekontua bideratu (fotokopiak egiteko ozta-ozta ematen duena) eta, horrekin eta pertsonala alde edo moldez sendotuz gero, akabo arazoa Administrazioarentzat.



Ikasleak, Nafarroa Irigo Arista kolektiboaren eskulitik ezagutzeko eginko irtenaldi batean. Baitanen dira, ekitaldi batean. Txirula jotzen ez duten haurrak sasoikakoak dira.

(4) 2001-2002 ikasturtea ezker, Nafarroako Hezkuntza Departamentuaren aginduz ziklo bukaeretan burutzen dena.

Ikasgelan erronkak gero eta gehiago dira:

programazioak egokitzea, eskola-materialak sortu edo egokitzea, elkarbizitza, diziplina, lan-erritmoa...

Orain, EHNE nekazaritza sindikatuak aurkeztu duen sasoikako langileak artatzeko proiektu integrala aztertzeko ari da Nafarroako Gobernua; egitasmo horretako atal batek sasoikako langileen seme-alaben eskolaztea du ardatz, baina oraingo garatzeko dago.

Lehenago bazen, Konpentsaziozko Hezkuntza-programaren barnean, sasoikako ikasleentzako berariazko atal bat, baina egun (aniztasuna aintzat harturik baina, hori bai, goian aipaturiko laguntza ekonomikoan eta ahaleginean eragina duena) hainbat negoziatutan dago diluitua.

Ikasgelan erronkak gero eta gehiago dira: programazioak egokitzea, eskola-materialak sortu edo egokitzea, elkarbizitza, diziplina, lan-erritmoa...

Sasoiko ikasleen gurasoak ez daude batere ados eskolak antolatzen dituen irteerekin eta horietako gehientsuenek ez dute seme-alabak eskolaz kanpoko jardueretan partehartzeko baimenik ematen. Bestetik, ikasurterako antolatutako dauden eskolaz kanpoko jardueretan, martxotik aurrerako prestakuntza direnetan ikasleen gehikuntza aintzat hartzen da; horrek, batzuetan,



Baztanerako irtenaldi baten ikasleak. Horietako batzuk sasoikakoak dira.

ikaslegi bat baino gehiagok erabazten dituzten irteerak egiteko garraio bide gehiago kontratatzeke premia, eta, hortaz, aurrekontua luzatu beharra dakar.

Ikastegietako irakasle egonkorra egokiera horretarako prestatua dago, eta, egitarau aldaketa zehazturik ez badu ere, gogoan dauka bederen. Ikastetxe batean pertsonal osoa berria denean, ordea, zer gertatzen da? (Urtero-urtero gertatzen da hori ikastegi batean baino gehiagotan).

Bat-batean dena aldatzen da. Bizipen oro bezala, hau ere aberasgarria zaio eskola-komunitate osoari (ikasle-irakasle eta gurasoei, alegia). Bai kanpotik datozenentzat bai bertan garenontzat, egokitzeko ahalegina den-denon garapen eta errealizazio pertsonalerako garrantzi handiko baliabide bihurtzen da.

Salbuespen bakanak salbuespen, sasoikako ikasleak ez daude bat ere gustura hasieran, behintzat: azturen eta adiskideen falta nabaritzen dute. Herrian eskolara ohi ez direnek ere (inoiz, gurasoak herritik urrutiko *cor-tijo* batean lanean ari direlako edo beste herrialde batean ari direlako, hala nola Levanten, laranja biltzen) etorri behar dute hemen eskolara; bestela, gizarte zerbitzuen ardurakoa da eskolan huts ez egitea. Herrian jardunaldi jarraitua dute eta hemen, etena (batzuetan gurasoekin doaz umeak zainzuri sailera goiztirian edo lehenago eta hortik eskolara eramaten dituzte, baina siera egiterik ez dute izaten). Irakaskuntza-plegu eta arau jakin batzuetara jarri direnean, beste batzuetara egokitu behar izaten dute, hitz batez.

Erreferentzia bibliografikoak:

- DPA (Defensor del Pueblo Andaluz) (1997). "Temporeros y educación: la atención educativa a los hijos de trabajadores temporeros". *BOPA*, 141.
- DPA (Defensor del Pueblo Andaluz) (1997). "El fracaso escolar entre los hijos de trabajadores temporeros: un problema para el desarrollo futuro de Andalucía". *BOPA*, 141.
- Gabarri Hernández, C.; Gabarri Hernández, F. eta Giménez Adelantado, A. (2001). "Temporeros agrícolas, ¿qué pasa con la escuela?". *Dialogo gitano*.
- 2005-10-09ko artikulua, DEIA egunkarian: "Andaluces de Jaén, temporeros de altura".
- Sasoikako langileak artatzeko proiektu integrala (EHNE) <http://www.ehne.org>.
- Sasoikako etorkinen familiak artatzeko programa (2004). Sevillako Diputazioa.



LHko 5. eta 6. mailako ikasleak ikastetxeke patioan. Horietako zortzi sasoikakoak dira.

Hezkuntza Departamentuak ez du fenomeno honetaz inolako azterketarik egin, edo, egin badu, ez du argitara eman, gutxienez. Akaso sasoikako ikasle kopuruak, ikasleria osoaren aldean, kopuru adierazgarria osatzen ez duelako, edo fenomeno hau bizi duten eskolek, guztien aldean, kopuru adierazgarria osatzen ez duelako, edo behin-behineko egoera izango zela uste zutelako (nahiz eta hoge urtez gauza bera errepikatu den...)

Ba al da landa-eskolarik?

José Luis Murillo García

CRA¹ Alta Ribagorza taldean kokatuta dagoen Sahún-go herri eskolako maisua eta "Aula Libre" MRP-ko kidea

Aragoiko Pirinioetan hainbat urte bizi izan eta bertako eskoletan lanean jardun ondotik, Benasque haranean ezau-garri sozio-ekonomiko bereziak zituzten ikastaroak eman ondoren, beste hainbat bidetatik ibiltzearen eta, jakina, arbolek basoa ezkutuzten dutelako, landa-eskolaren kontuaz gogoeta egiteko une bakar bat luzaro eman gabe pasatu ostean, gai hau berriro topatu eta hausnarketa egiteko tenorea iritsita, konturatu naiz orain nagoen landa-eskola ez dela aspaldi ezagutu nuena bezalakoa.

Garai batean, landa-eskola kontu estatistiko hutsek ez ezik —ikasle kopuruak, adin desberdinen arteko nahasketak— elementu kualitatiboagoak definitzen zuten: hiriko kultura industrialaz zeharo beste alderako nekazaritzan eta abeltzaintzan oinarrituriko sozio-ekonomiaren kulturen girotua zegoen; eskola-komunitateak gizakien eta gizataldearen garapenean betetzen zuen rola positiboki baloratzen zuen eta kultur erreferentzi gune nabarmen izan ohi zen; bizi zen gizartearen kulturen txertatzeko unean ez zeuzkan hiriko eskolak bezalako baliabideak; ikasleak herrian jaiok ziren eta bertan bizi ziren, etab.

Orain, berriz, landa-eskolak berak dituen ezaugarri batzuei heldu egin die eta estatistikak mantentzen ditu, baina bestelako eskola eredura begirako aldaketa sakonak gertatu zaizkio. Hona horietako batzuk:

- Landa-ingurunearen transformazioa: zerbitzu-ekonomian edo nekazaritza eta abeltzaintza teknifika-

tuan oinarritutako ereduranzko joera nabarmena; bestelakotze horren indarra eskualde batetik bestera aldatu egiten da, noski.

- Immigrazio fenomenoak.
- Internet eta teknologia berrietatik sorturiko informazioaren eta komunikazioaren gizarteak.
- Azkenik, niretzat, funtsezkoena (egunero ikasgelan gertatzen dena horren arabera aldatzen baita, eta gure eskola hauetan nolako norabidea hartu behar dugun determinatzen duena delako): zentroen estruktura berria eta irakasleen egoera.

Landa-ingurunearen transformazioa

Gure Aragoi honetako eskualde askotan ekonomia-aren ardatzak nekazaritza eta abeltzaintza diren arren, ekonomia zerbitzu sektorerantz gero eta lurralde gehiagotan bideratzen ari dira (landa-turismoa, abentura-kirolak, turismo kulturala, eski-estazioak, golf zelaiak, populazio-gune urbanoagoetatik gertuko bizitokiak, eta abar); areago, abeltzaintza edo nekazaritza ekonomiaren euskarri dutenetan ere, ekonomia gero eta teknifikatuago bilakatzen ari da, tradizioaren kaltean: horrelaxe gertatzen da mahastiek, ureztatze-laborantza berri, abeltzaintza es-tentsibo eta beste hainbatek okupatzen duten lurraldeetan; horrek eragiten duen aldaketa kulturean bertan bizi diren pertsona horien bizitzak gero eta kontaktu gutxiago du lurrarekin, eta, gehiago, aldiz, internetek, hedabideek edo hiri ingurunearekiko ha-



Sahún-go eliza (Angel Olorón, 1999)

rreman jarraituagoak ekarritako eredu sozial eta kulturekin.

Aldaketa sozio-ekonomiko eta kultural hori familia eta eskolarekiko harremana aldarazten ari da: familiak nuklearragoak egunetik egunera, dagoeneko ez dira aitona-amonek, osaba-izebek, aita-amek eta seme-alabek osaturiko sendi haiek; gero eta ohikoagoak dira bi gurasoek eta seme-alabek, gehienez ere, osaturikoak. Horrez gainera, aita eta ama, guraso biak, hasiak dira etxetik kanpo lanean, arrazoi ekonomikoengatik ez ezik, emakumearen emantzipazioa gauzatzeko ere.

Nobedade horien ondorioz, denbora-ekasiasia edo nekeagatik, edota beste senide batzuk etxean ez izatearren (hiri-ingurunean gertatzen ari zen bezala), seme-alaben hezkuntzan gutxiago parte hartzen du familiak. Hori, noski, bestelako arazoan iturri izango da, balioen transmisioaz eta norberaren garapen pertsonalean harreman afektiboez ari garela. Ikasle- en astia, eta, eskolatik at, hezkuntza-erreferentzia behinenak betetzen dituztenak internet edota tele-

bista dira, gero eta areago: inguruneari arrotz zaizkion balioak erakusten ditu ekonomia globaleko botere guñeek determinatu bezala.

Hor landa-eskolaren eta bestelakoaren eginkizuna egunez egun garrantzi handiagoa hartzen ari da, jasotzen dituen ikaslearen adinengatik eta egungo gizarte eta sistemagatik, bai berez biziki garrantzitsua den ezagutzaren transmisioan, baita, hein handiago batean, garapen pertsonal eta sozialean aurrera egiteko ezinbestekoak diren balioen transmisioan ere: elkartasuna, bestelakotasuna errespetatzea, ez diskriminatzea, bakea, erantzukizuna, ingurunea errespetatu eta zaintzea, etab.; baita alderdi sozio-afektiboetan ere: auto-estimazioa, bere buruan sinestea, partekatzea, etab.

Horixe da gure ikasgeletako lana funtsean norabide honetan bultzatu behar dugula uste dut, eta, gure ingurunean, hezkuntza-administrazioak planteatu, sostengatu eta sustatu beharko lukeen jarduera-ildoetako bat, hainbat bizipen praktikan jarritz, hala nola bitartekaritza, eskola-jazarpeneren aurkako bo-

(1) Colegio Rural Agrupado



Sahún-go elizaren gorapetik (Angel Olorón, 1999).

rroka, diskriminazioaren aurkako borroka, hezkuntza-komunitateak, eta hiri-ingurunean ohiko bihurtzen ari diren edo etorkizunean sor litezkeen besteen aurka azalduz.

Administrazioa horrelako ekimenetan hasia dagoen arren, alor honetan martxan jarri behar den beste jarduerara ildo bat, emakumea eta kolektibo ahul eta zigortuenak txertatze prozesuak erraztuko duten herri txikiak zerbitzuak dira: kanguru-etxeak, haurtzaindegiak, eskola jantokiak, gure ikasleak zainduak egon daitezzen eta astiaz gozatzeko aukera eman dakien ludotekak, udal-liburutegiak, musika-eskolak, jarduerak ingurune sozial eta naturalean bertan, eta abar. Egun, jakina denez, gurasoen elkarteek, udalek edota boluntarioek betetzen dituzte eginkizun horiek ahal duten moduan, Administrazioaren aldetik laguntza urria egonik.

Immigrazioa

Gure garaiotako erronka liluragarri eta liskartsuena bat immigrazioa da. Beste garai batzuetan etorkinak herrialde berri batera, kultura berri batera iristen ziren eta beren lehentasuna harrerako toki eta gizarte hartan txertatzea eta egokitzea zen, hainbat arrazoik agindurik, beraien kultura bertan behera edo alor pribatu hutsean utzita; egungo immigrazioa, aitzitik, gure gizartean balioen berrazterketa (emakumearen papera, ingurugiroaren garrantzia, bakea eta elkartasunaren kultura berria sortzeko premia, bizi gaituen sistema sozio-ekonomiko globalizatuak hertsatu nahi digun eredu soziokultural berria, eta abar) egiteko une hauetan benetako kultura nahastea bihurtzen ari da.

Elementu horiek guztiak, nire ustez, biziki aberasgarriak izan daitezke gure kulturarentzat eta gure gizartearentzat, segun-eta nola gestionatzen ditugun eta nolako erantzuna ematen diegun; izan ere, ez herentzian hartu ditugun balio guztiek, ez kanpotik iritsi zaizkigun guztiek ere, ez dute zertan izan baliozkoak orain eta gerorako. Tolerantzia, diskriminaziorik eza edota elkartasunarekin batera bestelako balioak ere azaldu dira, hala nola patriarkalismo edo xenofobia, adibidez, eta hauek auzitan jarritz gero, zeharo suntsitu beharko lirateke, ahal izanez gero.

Gure ikasgeletako egunerokotasunean, dudarik gabe, izen-abizenak dituzten krisi jakinei ihardetsi behar diegu. Alde batetik, gero eta ohikoagoa da lan-

da-giroan hasi berritako familietako (are beste hainbat herrialdeetatik etorritako) ikasleak topatzea, eta hori ez da gertatzen hiri-eskolan; bestetik, beren herrialdeak bizi ahal izateko lanaren bila edo gerretatik eta liskar politikoetatik ihesi etorritako etorkinen umeak ditugu. Landa-eskolan, dagoeneko, ikasgela batzuetan ikasleen erdiak bestelako aire batez (edo bestelako hizkuntza batez) mintzatzen dira, bestelako balioak ekarri dituzte eta ikasgela horretan txertatzea premiazkoa du baina, hori bai, sustraiei uko egin gabe.

Landa-ingurunean, gaurdaino hirian baino harreman pertsonalizatuagoak mantendu direnez, oso litekeena da mutur-muturreko egoerak gertatzea: iritsi berri eta laguntza premia gorrian dauden pertsonen erabateko sostengua agertzea edo erabateko arbuioa, herentzian jasoriko estereotipo sozialengatik mantentzearen edo bestelako ohiturak dituztelako. Bigarren hau suertatzen denean, sortzen diren ghettoak urriagoak diren arren, gizakien egoera are eta gogorragoa da, hirian baino latzagoa eta gertukoagoa delako errefusa.

Eskolak, balioen transmisiorako espazio eta familien topagune den aldetik, prozesu berri horietan berebiziko papera beteko du, agian. Baina eskolak ezin izan dezake eragina fenomeno horretan bertako irakasleen boluntarismo hutsarekin soilik; alderantziz, Administrazioak argi eta garbi sostengatu behar du, planteatzen diren ekimenak bultzatuz, burokraziarekin ito ordeztuz, txertatze programak proposatuz eta txertapen laboral eta sozialean jantzirik egongo direnez, afera hauetaz arduratu daitezkeen eta, irakasleekin batera, lanean aritu daitezkeen profesional berriak ekarriz.

Informazioaren eta komunikazioaren gizarte

Landa-eskolan gertatzen ari den funtsezko aldaketa bat teknologia berriei dagokie. Alde batetik Aragoiko Gobernuak teknologia horiek ikasgelan sartzeko egin duen ahalegina oso positibotzat joenez, prentsaren (ekonomiari buruzkoa, batez ere) zifrek eta titularren lilurapean mozkortu nahi badugu; astiroago aztertzen badugu eta ikasgelan bizi badugu, aitzitik, sarrera horrek eta aspaldi honetan hezkuntza sistemara orokorki eta landa-ingurunera bereziki zuzendu diren politikek arazo berberak nozitzen dituztela ikusiko dugu: plangintza falta, landa-eskolako irakaslea eta errealitatea aintzat ez hartzea, ba-

Hor landa-eskolaren eta bestelakoaren eginkizuna egunez egun garrantzi handiagoa hartzen ari da; ezagutzaren transmisioan, baita, hein handiago batean, garapen pertsonal eta sozialean aurrera egiteko ezinbestekoak diren balioen transmisioan ere: elkartasuna, bestelakotasuna errespetatzea, ez diskriminatzea, bakea, erantzukizuna, ingurunea errespetatu eta zaintzea, etab.; baita alderdi sozio-afektibotan ere: auto-estimazioa, bere buruan sinestea, partekatzea, etab

liabideak alferrik xahutzea emaitzak baloratu gabe, programa jakin batek balio duen edo ez determinatzeko unean prentsari jaramon egitea, planteamendu psikopedagogikoak lehenetsi ordeztuz, gastua areagotzea hezkuntzaren kalitatea hobetzearen parekotzat hartzea, diruak zertan gastatzen ari diren eta horrek errealitatean nolako oihartzuna izango duen erreparatu gabe, etab.

Azken finean, hezkuntza sistemaren merkantilizatze-prozesua jasatea suertatu zaigu: horren arabera, teknologien nahaste-borraste horretan irakaslea behar bezalako prestakuntzarik gabeko zerbitzari bihurtzea nahi dute, bere proposamen eta premiak aintzat hartu gabe; familiak, berriz, kontsumitzaile hutsak izango lirateke eta, ikasgelen bitartez, tabletpc eta Microsoft-eko produktuak salduko litzazkieke.

Lastima da, landa-inguruneko eskola txikiak, beren ezaugarriak horrelakoak izaki, ikasleen prestakuntzan informazio eta komunikazioaren teknikek izan

Hezkuntza sistemaren merkantilizatze-prozesua jasatea suertatu zaigu: horren arabera, teknologien nahaste-borraste horretan irakaslea behar bezalako prestakuntzarik gabeko zerbitzari bihurtzea nahi dute, bere proposamen eta premlak aintzat hartu gabe; famillak, berriz, kontsumitzaile hutsak izango lirateke eta, ikasgelen bitartez, tabletspek eta Microsoft-eko produktuak salduko litzaizkieke

dezaketen eragina dela eta, ekimen berriak martxan jartzeko eta bide berriak urratzeko, software aske, ireki eta doakoa banatzeko, irakasleen prestakuntzarako prozesu planifikatu bati hasiera emateko, teknologia berriez ikasgeletan sortzen diren benetako ekimen eta proposamenez arduratzeko profesional berriekin eskolak aberasteko eta beste hamaika egiteko espazio egokia izan litezkeelako. Baina hori ez da multinazionalentzako diru-bidea, eta, gainera, ez du titular askorik ematen.

Kontuak kontu, Extremadura, Andaluzia eta beste hainbat erkidegoren aldean, urte batzuetako atzerapena daramagu, hori bai, egoera surrealista batzuk tartekatutik, hala nola baliabide berriak testu liburuak eskaneatzeko erabili eta beti bezala lanean jardutea baina, hori bai, paperik gabe, "arbela digital" deritzon programak nahi omen duen bezala, liburu eta liburutegien erabilera sustatzeko hezkuntza administrazio berberak lehenago martxan jarri zuen beste programa harez beste aldera.

Irakasleen eta zentrozen egoera

Amaitzeko, zentrozen eta beroriei atxikitako irakasleen egoera berria dugu hor: Erreformarekin batera

sortu ziren partaidetzaren aldeko proposamen eta dinamikak pixkanaka ezabatu eta hezkuntza-komunitateek hitzartu eta adosturiko Zentroko Hezkuntza Proiektuen inguruko zentrozen antolakuntza apurka-apurka abandonatu dira.

Landa-inguruneke zentro isolatuen lekuan, dekretu bidez, Taldekatutako Landa-Ikastetxeak agertu dira eta, hezkuntza sistemaren gainerakoan gertatzen den bezala, horiek ere kolegiatu gabeko hierarkien arabera sailkatutako zuzendari ekipoek kudeatzen dituzte; orokorki, Administrazioaren politikak praktikan ezartzeko eta hiriko bulegoetan hartutako determinazio ekonomizistetan oinarrituriko erabakien transmisio kate gisakoak dihardute: zuzendaritza eredu hori ekonomikoki eta puntuen bidez sustatzen, indartzen eta saritzen du indarreko Administrazio horrek.

Zentroetako plantilek eta ratioek ez dute aintzat hartzen landa-ingurunearen errealitatea, ezta administratiboki antolatutako dauden taldekatutako landa-ikasetzeko horien sakabanaketa, ezta ikasgela berean adin desberdinetako ikasleak izatea, ezta sortzen ari diren egoera berriak (goian azaldu ditudanak). Eta hori larritu egiten da prestaturiko espezialitatea ezin praktikan jar dezaketenean (baina, azkenean, ustekabez tutore-lanetan jardun behar duten) espezialista mordoxka batek bete behar omen duten tutoretza pixkanaka desagertzen ari baita.

Irakaslearen etengabeko prestakuntza (landa-ingurunean are eta zailagoa, eskaintza ezagatik eta leku aldatzeengatik) ia ez da existitzen: ikasgeletako errealitateetik urrundu eta zorrozki hierarkizatutako dauden landa-ikasetzeko taldekatu batzuetan interes politikoki jakin batzuen zerbitzutara egiten den trami-te burokratiko hutsa baino ez da, kasik; horrek, noski, landa-irakaslearen partaidetza eta egunean jar-

Irakaslearen etengabeko prestakuntza (landa-ingurunean are eta zailagoa, eskaintza ezagatik eta leku aldatzeengatik) ia ez da existitzen

tzea eragotzi egiten du. Irakasleak, horrela, ez du egonkortasun laboralik, ezta betetzen duen plazan ere.

Tamalez, aspaldikotasuna euskarri ia bakarra zuen traslado lehiaketan bitarteko sistemak, aspalditik herentzian hartua, eta egiazko premien aurretik ekonomia lehenesten duen merkantilizazio horrek, irakaslea behin-behinekotasun egoeran urte luzetan egonaztzen dute, benetan existitzen diren eta hezkuntza-prozesuetan inplikatzeko gero eta motibazio motelagoa agertzen duen irakasleriak urtero bete behar dituen plazetan egonkortasunik izateko aukera ukatuta.

Bukaera gisara

Panorama horretara begira, berriro galdetu diot neure buruari: ba ote da oraino landa-eskolarik?

Azkenean, aldatu den arren, eta aspaldi honetan txarretik okerrera joan den arren, badirudi oraino ere "landa-eskolatza" jo dezakegun eredu batek bizirik dirauela; izan ere, aldaketa horiek guztiek hiri eskolak ohikoak dituen errealitateetara gerturatzen omen gaituzten arren, landa-eskola kudeatzeko forma ezin izan daiteke berbera izan.

Batez ere, goizean nire ikasgelan sartzen naizenean ez dudalako topatzen bertan 3. A edo 5. B klasea, ikasle gehiago dituzten eskoletan gertatzen den modura, edo adin bereko ikasle guztiak klase berean; hor topatzen dudana da Eloy, María, Jesús, Juan, Irene, María, Sheila, Cristina, Álex, Carla eta Álvaro; horiek, bere hiru, bost, zazpi edo bederatzirte dituztela egunon esaten didate, begiratzen didate, nik begiratzen diet, elkarri irriño bat egiten diogu, eta, beste egun batez, elkarrekin ikasten, galderak egiten, sortzen zaizkigun arazoaren konponbidea bilatzen, eta, hitz batez, gure bizitzako puska bat partekatzen hasten gara.

Horretaz, ez nire planteamenduak, ez nire lana ezin izan daitezke bestelako eskoletan bezalakoak izan: horrek bereizitako tratamendua eskatuko luke, baina orain hori ez du aintzat hartzen hezkuntza sistemak.

Berrikuntza Mugimenduaren "Aula Libre" "paperezko" aldizkarian, 85. zkan, plazaratu zen artikulu hau 2007ko maiatzean.

Badirudi oraino ere "landa-eskolatza" jo dezakegun eredu batek bizirik dirauela; izan ere, aldaketa horiek guztiek hiri eskolak ohikoak dituen errealitateetara gerturatzen omen gaituzten arren, landa-eskola kudeatzeko forma ezin izan daiteke berbera izan



Irakaslearen etengabeko prestakuntza (landa-ingurunean are eta zailagoa, eskaintza ezagatik eta leku aldatzeengatik) ia ez da existitzen

Eskola txikiak, txikitasunean handi

Mikel Gereka Zelaia

Iturengo herri eskolako maisua eta HUHEZIKo irakaslea

Artikulu honetan Euskal Herrian zehar sakabanaturik dauden landa-eremuko herrietako eskolei buruzko hausnarketa xume bat eskaintzen da, urte mordoxka batzuetan, errepidea gora, errepidea behera, maleta soinean hartuta, horrelako eskoletan aritzen den irakasle ibiltari baten ikuspegitik. Eskola txikietan irakatsiz ikasleengandik aunitz ikasi duenaren ikuspegitik.

Ez da formula magikorik eskaintzen, eskola txiki bakoitza bere testuinguruan kokatzen den mundu bat baita. Txikiak gara tamainan, baina harro gaude gure txikitasunean. Ez dugu handiak diren modukoak izan nahi. Ez dugu homogeneitatea bilatu eta bultzatzen. Heterogeneitateak karakterizatzen gaitu eta horrela agertu nahi dugu mundura. Txikiak izanik, handi garelako txikitasunean.

Eskola txikiak, inklusioaren eredu psikopedagogikoa

Eskola txikiak, landa-eremuko eskolak, eskola unitarioak, osatu gabeko eskolak, herri txikietako eskolak... Oraindik guk geuk ere ez dakigu zein den gure eskola-eredua hobekien definitzen duen deitura. Bat aukeratzekotan, **herri txikietako hezkuntza-komunitateak** izan zitekeen deitura egokia, nahiz eta agian luzeegia eta ez oso musikala edo praktikoa izan.

Guk lan egiten dugun herri txikietako hezkuntza-komunitateek eskolako eraikuntza bera gainditzen baitute; kalea hartzen dute, herria bustitzen dute, eta ikasleak protagonistak izanik ere, irakasle nahiz gurasoekin batera komunitate bat osatzen dugu, hezkuntza-komunitatea. Gure ikasleek, (eta guk geuk ere bai), komunitate horrekiko pertenezia edo partehartze sentimendu indartsua dute, eta horrek zerikusi zuzena du beraien auto-kontzeptu, auto-estimua eta nortasunaren eraikuntzarekin.

Txikiak gara eta txiki izaten jarraituko dugu, hori baita gure izatearen muina. Landa-eremuan gaude eta horregatik gara txikiak, tamainan. Euskara da landa-eremuaren hizkuntza, komunitatearen hizkuntza, eta guk bertako hiztunon hizkuntza eta euskaraz bizi eta euskarari bizitza eman nahi diogu gure komunitatetan. Euskaldun osoak eta eleanitzak izan nahi dugu. Beraz, Euskal Herria herri txikiaren barrenean, gure txiki izatearen aldarrikapena egiten dugu. Txiki izanda ere, eredu izan gaitezkeelako, hezkuntza-komunitateentzako eredu.

Ez gara eskola txikiak (peioratiboa dirudi txiki horrek) baizik eta hezkuntza-komunitate txikiak herri txikietan. Arexolaleibak dioen moduan (Arexolaleiba, 2004): "small is beautiful", txiki izatea ederra da.

Konstruktibismoa da gure eguneroko jardunaren oinarri psikopedagogikoaren markoa. Gure ikasleek beren aurre ezagupenetatik abiatu eta une oro eraikitzen dute ezagutza esanguratsua. Gure lana "aldamio" lana egitea da, ikaslearen ezagutza-eraikuntza horretan, betiere bere Garapen Hurbileko Eremuan (ZDP: "Zona de Desarrollo Próximo") sostengua ematea, laguntza eskaintzea eta apendizai esanguratsua lortzeko tresnak ezagutaraztea.

Gure eskoletan badakigu zer den aniztasunean lan egitea eta ez dugu aniztasun hori traba bezala ikusten. Ez dugu nahi aniztasuna gutxitzea eta ez dugu homogeneotasuna bilatzen, ez baita existitzen, ez gelan ezta bizitzan ere. Gure geletako aniztasuna aberastasun-iturri bezala kontsideratzen dugu. Ez dugu lan egiteko formula magikorik, baina Lotan-ek (Cohen eta Lotan, 1997) azaldu zuen konplexutasunaren pedagogia kontuan hartzen saiatzen gara:

"Una estructura educativa capaz de enseñar con un alto nivel intelectual en clases que son heterogéneas desde el punto de vista académico, lingüístico, étnico y social, de forma que las tareas académicas puedan ser atractivas y retadoras".

Gure eskoletan ikas-irakats prozesuetako "tempo" des-

berdinak errespetatzen ditugu. Ikasle bakoitza mundu bat da, eta bera den bezala onartu eta baloratzen dugu. Bere "tempo" hori errespetatzeko arreta handia jartzen da eta laneko ohituren oinarritzkoenetako ezaugarria da.

Ikasleak protagonistak izanik ere, irakasle nahiz gurasoekin batera komunitate bat osatzen dugu, hezkuntza-komunitatea. Gure ikasleek, (eta guk geuk ere bai), komunitate horrekiko pertenezia edo partehartze sentimendu indartsua dute, eta horrek zerikusi zuzena du beraien auto-kontzeptu, auto-estimua eta nortasunaren eraikuntzarekin

Hezkuntza inklusiboa, jarrera bat da, balore eta sinismen sistema bat. Egun dugun curriculumean azaltzen dira hitz ponpoxoetan jarrerak eta balioen garrantzia, baina eguneroko praktikan, sarritan, eskola ezagutzaren transmisorea da soilik neurri handi batean. Beraz, bada garaia eskema batzuk aldatzen joateko, eta jarrerai, elkartasunari, errespetuari, desberdintasunaren aberastasunari eta justizia sozialari ere gure curriculumean merezi duten bere tokia emateko

Aniztasun horren ezinbesteko markoa eskola inklusiboaren markoa da, eta hor eta ez beste inon kokatu nahi ditugu gure herri txikietako hezkuntza-komunitateak, komunitate inklusiboak, alegia.

“La educación inclusiva es una actitud, un sistema de valores y creencias, no una acción ni un conjunto de acciones. (...) Hoy en día la creciente diversidad de alumnos en nuestro sistema educativo es un importante tema de debate y preocupación. Entre las diferencias se encuentran la lengua, la cultura, la religión, el sexo, la discapacidad, la preferencia sexual, el estado socioeconómico, el marco geográfico y muchas más, que denotan la multiculturalidad existente en la escuela. Pero, frente a esta realidad, a menudo, encontramos que la diversidad es entendida como un problema, más que como una maravillosa oportunidad de aprender sobre la variedad de vida de otras personas, y también sobre lo que significa ser humano. A nuestro juicio, ser incluido, valorado y respetado por quien uno es en un mundo diverso y plural por naturaleza” (Arnáiz, 1996).

Eskola honetan, beraz, kultura edo jatorria beste aldagai bat besterik ez da. Horregatik ez diogu beldurrik gaur egun hainbestetan berba egiten den immigrazioaren fenomenoari. Guk “haur etorkinak” termino bera ere kuestionatzen dugu. Ez dago haur etorkinik. Etorrinak, izatekotan haur horien gurasoak izango dira. Haurrak haurrak dira eta gure komunitate inklusiboan ongi etorriak dira guztiak, bakoitza bere berezitasunean. Ez diogu jatorriari begiratzen. Haur horren behar espezifikoari erantzuna emateko gai izan behar dugula uste dugu eta horretan jartzen dugu indarra. Ez dugu esan nahi ez dugunik ezer egin behar. Eskola inklusiboa aldarrikatzen badugu, gizarte inklusibo bat nahi eta aldarrikatzen dugulako da, eta immigrazioak dakartzen erronka berriei aurre egiteko ezinbesteko ikusten dugu Kulturarteko Hezkuntzari behar duen tokia ematea, nahiz gure curriculumean nahiz komunitate osoan.

Euskal curriculumak Kulturarteko Hezkuntzaz blaitua behar du izan, ez baitugu ahaztu behar, euskal kultura eta euskara guztiona izango dela (Euskal Herrira gu baino beranduago iritsi direnena ere bai) edo ez dela gehiago izango (Barquín, 2004).

“Kulturarteko Hezkuntza ikuspegi edo enfoketara bat da, gizarte osoa eta hiritar bakoitza inplikatzeko duena. Desberdintasun kulturalak beti daude presente eskola testuinguruetan, nahiz eta jatorri etniko edo nazional jakin bateko talde konkreturik ez egon. Kontua ez da orain heziketako esku-hartze espezifiko bat ezartzea talde kulturalentzat, baizik eta ikuspegi berri bat, hezkuntza prozesu osoaren dimentsio eta esparruetan eragiten duena” (Barquín, 2003).

Gorago aipatu dugun moduan, hezkuntza inklusiboa, jarrera bat da, balore eta sinismen sistema bat. Egun dugun curriculumean azaltzen dira hitz ponpoxoetan jarrerak eta balioen garrantzia, baina eguneroko praktikan, sarritan, eskola ezagutzaren transmisorea da soilik neurri handi batean. Beraz, bada garaia eskema batzuk aldatzen joateko, eta jarrerai, elkartasunari, errespetuari, desberdintasunaren aberastasunari eta justizia sozialari ere gure curriculumean merezi duten bere tokia emateko. Ez da nahikoa izango matematika, hizkuntza eta ingeleza ondo jakitea geroko hiritarrak gizartean ongi egokitze; horiek bezain garrantzitsuak —edo garrantzitsuagoak, gure ustetan— baitira lehen aipaturiko jarrera eta balio berriak.

Horren harira, komeni da kontzeptu hauek garbi bereiztea (Barquín, 2003.):

- **Desberdintasuna (Diferentzia):** Hezkuntza faktore hauekin dago lotuta: adimena, ikaskuntza erritmoa, gaitasunak...
- **Aniztasuna:** Konnotazio positiboa dauka. Oro har, esan daiteke: “munduan ez daude bi sorkari berdin”.
- **Parekotasunik eza (desigualdad):** Konnotazio negatiboa dauka. Aldagai sozial, ekonomiko eta politikoen dago lotuta. Talde-dimentsioa dauka.

Eskolak desberdintasuna kontuan izan behar du, aniztasuna bultzatu behar du, eta, ahal den heinean, parekotasunik ez izatea neutralizatu behar du. Ildo horretatik, arriskutsua da gizakiok elkarrengandik banatzen gaituena azpimarratzea, batzen gaituena baino. Eskolaren erronka bada komunean daukaguna nabarmen-tzea ere (Barquín, 2003).

Gure herri txikietan eskolak laguntzen die haurrei komunitatean integratzen, eta horretarako beharrezko dituz-

ten tresnak eskaintzen ditu. Ezinbestekoa da aldarrikatzea talde interakzioaren garrantzia apendizaiaren eta irakaslearen papera eragile eta ikertzaile aktiboa bezala.

Herri txiki batean ez dago eskolaren eta kalearen arteko distantzia handirik. Haurra eskolan integratzen denean, herrian integratzen ari da, testuingurua ez baita sobera aldatzen. Lagun berberak izango ditu eskolan eta kalean, eta hizkuntza bera, euskara erabiliko du bai eskolan eta bai kalean ere. Eskolak eta kaleak (eragile sozialak, gurasoak...) hezkuntza-komunitatea osatzen baitute.

Herri txikietako hezkuntza-komunitateak sozialki eficienteagoak dira. Hezkuntzaren didaktikan sarritan aipatzen dira inklusioa ezartzen joateko irizpideak. Aniztasunari erantzuteko estrategi metodologikoen artean, hauek aipatzen dira (Artetxe, Martínez eta Gereka, 2004):



Txikien gelan. Amaiurko eskola (2006).

Arriskutsua da gizakiok elkarrengandik banatzen gaituena azpimarratzea, batzen gaituena baino. Eskolaren erronka bada komunean daukaguna nabarmentzea ere

• **Taldekatze eta ordutegi malguak:** Malgutasuna da inklusioaren giltzarrietariko bat. Mailakatze kontzeptua ez dugu bakarrik begiratu behar parametro akademiakoetan, baizik eta giza konplexutasunaren ikuspegitik.

• **Lan-proiektuetan oinarrituriko irakaskuntza:** Proiektuen bidezko metodologia lan egiteko era irekia da. Bertan, arazoan (kognitiboak, prozedurazkoak eta jarrerazkoak) ebazpenen inguruan guztion, ikasle nahiz irakasle, elkarrekiko interakzioa eta inplikazioa era irekian eta adostasunez ematen da. Baliagarria da ikasleen motibazioa areagotzeko beraien protagonismoa eta partehartze aktiboa sentitzen dutelako, prozesu osoan zehar. Eta, aldi berean, proiektu hauek beraien interesgune eta proposamenetatik abiatzen direlako.

• **Txokoak:** Denok dakigu dugu zer diren txokoak; ume desberdinak, aldi batera egon daitezke gelako espazio-txokoetan, halako edo bestelako ekintzak aurrera eramaten, metodologia ezberdinak erabilia. Metodologia honek malgutasuna jartzen du agerian eta heterogeneitatearen eredu da. Baliagarria da hautazkotasuna lantzeko, hainbat testuingurutan ezagutzak aplikatzeko eta ikasle guztien interesak eta nahiak bideratzeko. Aldi berean, lan egiteko modu honek ikasleen parte hartzea eta autonomiaren maila altua bermatzen ditu.

• **Tailerrak:** Tailerra, ardatz tematiko baten inguruan ekintza marko bat errazteko asmoz antolatutako "espazio sozial" bat da. Honek irakasleriaren ekintza zuzenaren eta ezagutzaren eraikuntza sozialaren arteko uztarketa errazten du. Ekintza sekuentzia bat proposatzen du tailerrak normalean, non irakasleriak egindako curriculumaren analisi batetik abiatuz, diziplina ezberdinetako edukiak elkarlotzen saiatzen diren, eta bereziki eduki hiru motak: kontzeptuak, prozedurak eta jarrerak.

Tailerretan prozedurak bihurtzen dira kontzeptuak eta jarrerak bideratzeko ardatza. Eskaintzen duen malgutasunagatik oso baliagarria izan daiteke. Edozein espaziotan antola daiteke eta irakaskuntzaren edozein gai edo esparru lan daiteke bertan.

Tailerra gai baten zati bati edo gai osoari aplikatu daioke, eta bai diziplinen arteko proposamen bati ere. Talde bakar batentzat edo ziklo edo kurtso bateko talde guztientzat antolatu daiteke, eta ordutegiaren ordu batzuk bakarrik erabili edo curriculum osoa modu honetan antolatu daiteke.

Eragozpena? Lan egiteko modu honek dakarren alde aurreko materialen hornitzea eta antolaketa. Honek prebisioa eta irekitasuna, autokritika, errebisioa eta konfiantza eskatzen du irakasleriaren aldetik. Hots, metodologia honekin lan egiten hasteko gutxienezko formazioa. Metodologia honek irakats ekipoen eta irakaskuntza-ereduen arteko koherentziari erantzun behar dio.

• **Talde kooperatiboak. Ikaskuntza kooperatiboa:** Talde kooperatiboaren estrategia gela arruntaren barruan aniztasunari aurre egiteko oso estrategia indartsua eta eraginkorra da, ezagutza sozialki eraikitze eta elkar laguntzarako tresna aproposa delako. Talde kooperatiboaren lana ez da banakako lanaren batuketara, bukarako ekoizpena egin ahal izateko banakako zati ezberdinak ezinbesteko dituen ekoizpen kolektiboa baizik.

Estrategia hau oso baliagarria da aniztasunari aurre egiteko eta elkar laguntza suspertu eta bermatzeko. Estilo kognitibo, interesgune eta trebetasun ezberdinetatik abiatuz lan egiteko tresna interesgarria eta oso aberatsa bihurtu daitekeelako. Gainera, kontuan hartzen du oso garrantzitsua den aspektu bat: ez da bakarrik emaitza ebaluatzen, prozesua baizik, eta, bereziki, lanaren dinamika eta norbanakoaren papera.

• **Berdinkideen tutoretza (peer tutoring):** Estrategia hau ikasle batek beste ikasle baten eskaerari jarraituz, honi ematen dion laguntzan oinarritzen da. Kooperazioa ematen da, baina ez talde txiki eta heterogeneotan, bikoteka baizik; talde bateko ikasleen arteko bikotetan. Batek tutore papera hartzen du eta bestea ikaslea da.

Errealitatearen ispilu da estrategia hau. Gelatik kanpora ere haurrak beste haur batzuegandik gauza asko ikasten ditu eta jakina da hor ematen den interakzio hori nahitaezkoa dela haurraren bilakaerako. Gainera, ikaslearen autonomia eta auto-estimua indartu ditzake



Elkarrekin hobeki. Amaiurko eskola (2006).

estrategia honek. Eskaera egiten duenak berak hautatzen du norengana jo (eta bere eskaera ase) eta laguntza ematen duenari bere ezagutza konpartitzeko parada ematen dio.

Estrategia horiek guztiak (batzuk gehiagotan eta beste batzuk gutxiagotan) gure egunerokoa osatzen dute. Ez da bakarrik ohituak gaudela modu horretan lan egitera, baizik eta ezinezkoa litzatekeela beste modu baten ego ki lan egitea. Aniztasuna, malgutasuna, "tempo"ak... naturalak dira gure ikasleentzat, ez baitute besterik eza gutu. Eskolara sartzen diren unetik. Eta interakzioa, konstruktibismoaren ezaugarri sendoa, gure ikas-irakats prozesuaren oinarria da. Haurrak besteekiko interakzioan eraikitzen baititu ezagutza esanguratsuak.

Eskolaren helburua denontzako kalitatezko hezkuntza eskaintzea da, eta hori lortzeko nahitaezkoa da heterogeneitatea. Ikaskuntza-prozesuko heterogeneota-

Irakasleak ez du zertan izan "jakitun" bakarra, denok gara/dira jakitunak esparru desberdinetan. Denok behar dugu laguntza eta denok eskain diezaiekegu gure laguntza beste batzuei

sunaren sozializazioa kalitate sinonimoa da, denontzako aukera gehiago eta anitzagoak eskaintzen baititu (Rué, 2002).

Gure ikasleek lortzen duten autonomia-maila nabarmena izaten da. Irakasleak ez du zertan izan "jakitun"



Ttakun-ttakun, txalaparta tailerrean. Amaturko eskola (2007).

bakarra, denok gara/dira jakitunak esparru desberdinetan. Denok behar dugu laguntza eta denok eskain diezaiekegu geure laguntza beste batzuei.

Gure eskola inklusiboaren markoan hizkuntza edo kultura beste aldagai batzuk bezala kontsideratuak dira. Atzerriko ikasle batek jasoko duen laguntza pedagogikoa izango da, ez baztertzalea eta talde osoarekin batera

“Eskola inklusiboagoak edo barneratzaileagoak lortzeko, eskolan lan egiteko moduak aldatu egin behar dira. Eskolako kultura aldatu behar da” (Ainscow, 2003).

Guk ez dugu soluzio magikorik (irakaslearen **etengabeko formazioa** ezinbestekoa da aldaketa baten aurrean beharrezkoa den adimenaren irekitasunerako, “apertura mental”). Baina argi dago herri txikietako hezkuntza komunitatetako kultura beste bat dela eza gutzen ditugun eskola handien gehiengoarekin aldekatuz. Inklusiboagoak gara eta uste dugu badugula zer erakutsi alderdi horretan. Eta desberdinak garenez, gurekiko tratamendu desberdina izatea eskatzen diogu administrazioari. Autonomia eta malgutasun handiagoak. Aniztasunari kalitatez aurre egiteko errekurtsio gehiago. Irakasleriaren etengabeko formazioa (Ikerketa-Ekintza Metodoan oinarrituriko formazioa). Gure berezitasunaren errekonozimendua eta inklusioari ateak irekitzea.

Tonucci-k (1998) azaldutakoarekin bat gatoz gu: *“Herrietako eskolak abangoardia dira, adin ezberdinak egunero aurrez aurre daudelarik. Proposamen indartsua dira, bultzatzea merezi duen proposamena”.*

Bestalde, Xavier Besalú-k (2002) honakoa dio herri txikietako eskolei buruz:

“Las escuelas rurales constituyen una realidad donde de la integración en el marco de la diversidad es una realidad antigua y contrastada. Algunas investigaciones muestran cómo la instauración de la graduación escolar ha justificado y legitimado la necesidad de la selección académica de los alumnos y las ventajas de la homogeneización. Hoy, cuando la pluralidad y la democracia real han pasado a un primer plano, tal vez sea el momento adecuado para reivindicar las ventajas y la tradición de la escuela rural.”

La heterogeneidad es evidente en cualquier grupo, pero en una escuela incompleta el factor diversidad aparece con toda su plenitud: distintas edades, distintos niveles madurativos, distintos estilos de aprendizaje, distintas personalidades, variedad de programas, etc. Para atender educativamente esta diversidad y conseguir una escuela de calidad se hace necesario un planteamiento organizativo claro del tiempo, del espacio, del material, del agrupamiento de los alumnos, de las atenciones individuales que requerirán algunos de ellos y de las normas de funcionamiento de orden general.

Se necesita también un planteamiento didáctico bien planificado y estructurado, pues en la fase interactiva es prácticamente imposible tomar tantas decisiones curriculares simultáneamente. Debe otorgarse preeminencia a la adquisición de técnicas, hábitos y actitudes de trabajo que sean útiles para cualquier situación de aprendizaje y a la selección del material didáctico y de consulta.

Podríamos decir, para terminar, que la escuela rural es una experiencia exitosa y viva de investigación, especialmente preparada para atender con calidad a los alumnos pertenecientes a minorías culturales”

Goian aipatzen den gutxiengo kulturei buruz hauxe esan nahi dugu. Gure eskola inklusiboaren markoan hizkuntza edo kultura beste aldagai batzuk bezala kontsideratuak dira, aniztasunaren barneko aldagaiak, eta hori horrela kontuan harturik tratatuko ditugu. Atzerriko

ikasle batek jasoko duen laguntza pedagogikoa izango da (Barquín, 2003): ez baztertzalea eta talde osoarekin batera.

Harrera gizarteko hizkuntza ez ezagutzea izan ohi da ikasle atzerriarren aprendizai eta partizipazioa oztopatu dezakeen lehendabiziko barrera nagusia. Kasu horretan, badaude ere eskolako giro goxo eta inklusibo lortzeko eta hizkuntza indartzeko estrategiak; erraz aplikatzekoak eta oso eragingarriak. Luze joko luke horiek guztiak hemen azaltzea, baina uste dut merezi duela estrategia horiei buruzko aipua egitea (Coelho, 2006).

Hau da gure egunerokoari buruzko hausnarketa, txikitasunetik mundu handira eskaintzen duguna.

Erreferentzia bibliografikoak:

- Arexolaleiba, J. (2004). “Europar eta munduan aniztasuna: Etorbizuna= Etorkitasuna?!”. *Bat Soziolinguistika aldizkaria* 52, 95-111. orr.
- Arnáiz, P. (1996). “Las escuelas son para todos”. *Siglo Cero* 27, 25-34. orr; edo interneten: <http://members.fortunecity.com/camino/2001/Inclusion.htm>.
- Artetxe, M.; Martínez, J.I., eta Gereka, M. (2003). “Gela inklusibotarako estrategiak”. Hizkuntzen Psikopedagogiako lizentziako talde lana (argitaratu gabea), Hezkuntza Berezia gaien, HUHEZI fakultatea, Mondragon Unibertsitatea, Eskoriatza.
- Barquín, A. (2004). “El euskara y la integración lingüística de los inmigrantes”. *Etorki(zu)nak. Inmigrazioa eta Kultur aniztasuna Euskal Herrian* jardunaldiak. Sakanako Mankomunitatea. Altsasu.
- Barquín, A. (2003). Eskuhartze Psikopedagogikoa testuinguru kulturantzetan (apunteak). Hizkuntzen Psikopedagogia On-line, HUHEZI fakultatea, Mondragon Unibertsitatea, Eskoriatza.
- Besalú, X (2002). *Diversidad cultural y educación*. Madrid: Síntesis.
- Coelho, E. (2006). *Enseñar y aprender en escuelas multiculturales*. Barcelona: Horsori, S.L.
- Hik Hasi (2003). Mell Ainscow-i egindako elkarrizketa. *Hik Hasi* 83, 14-19. orr.
- Rué, J. (2002). “Aulas homogéneas, ¿para qué?”. *Innovación Educativa* 116, 29-34. orr.

Espainiako landa- eskola hobetzeko hainbat proposamen

Roser Boix¹

Bartzelona Unibertsitateko Didaktika eta Eskola Antolakuntza Doktorea

Aurretiaz, gogoeta zenbait

Landa-eskolak dezenteko hobekuntza bizi izan du XX. mendearen kondarrean eta XXI.aren hastapenean. Lehenaldiko kontuak dira premia latza edo areago, miseria gorria nozitzeko itxura zuten neskato-mutikoen eskola bukoliko, txiro, hits hura, gehienbat oinarri sendorik gabeko maisuen gidaritzapekoa.

Espainiako landa-eskolak, orokorki, azpiegituren hobekuntza ez ezik, alderdi pedagogiko eta antolamendu aldetik ere aurrera egin du. Gure landa-eskoletan *hezkuntzaren kalitatea hobetzeko bidean lehen urratsa egin dela esan dezakegu* baina, hori bai, hobetze bide horretan aurrera segitu beharra dago. Hobekuntza hori ez dator hiri-eskolaren eskutik, noski. Gure landa-eskolaren hobetze hori justifikatzeko ez dugu zertan jo honen eta hiri-eskolaren pedagogia eta antolamenduko egoerak konparatzera.

Honelako eskola hobea dela, gure egoera pedagogikoa hobetzeko, gure antolaketa-ahuleziak, gure material-gabeziak, gure testu-liburuen eskasia, eskolaz kanpoko jarduera zenbait praktikatzeko ezintasuna arintzeko edo konpontzeko erdietsi edo imitatu beharreko eredu horixe dela sinetsi edo aldarrikatzea ezin dugu euskaitzat hartu, inondik ere. Gure landa-eskolak eskain de-

zakeen hezkuntza baino kalitate hobekorik ez digu hiri-eskolak bermatuko. Zergatik ez, ordea?

Lehen-lehenik, eskolaren antolamendua eta kudeaketa testuinguruak determinatzen dituelako: ikasle gutxi eta espazio txikia edukita, neskato-mutikoak ikasturteka banatzea ezinezkoa da, bistan da, nahiz eta adin bereko gaztetxoek antzeko gaitasun, interes eta ikastemaiak omen dituzten. Dena dela, ikasleak ikasturteka banatzeak benetan bermatuko ote digu beraien ikaskuntza-erdiespenak hobetzerik?

Homogeneizazio estruktural eta pedagogikoaz geroztik, hori egungo heziketaren akats larria da, are eta larriagoa gure gizarte biziki heterogeneo honetan. *Landa-eskolak bere-berea duen heterogeneotasuna, beraz, ezin ukatuzko aberastasun pedagogikoa da*: gure ikasleek autonomia handia hartzen dute, eskolako lehen urteetatik hasten baitira trebetasun metakognitiboa garatzen (nagusiek txikiei laguntza ematen dietelako; lan honetan besteari zerbait irakasteko gaia eza gutu behar du norberak, hark uler dezan trebetasunak eskuratu eta erakutsi behar ditu, bestela... Nola irakatsiko ote dugu zer esan nahi duen ez dakigun eduki bat?), aurrerapauso esanguratsuak egiten dituzte etengabe eduki kontzeptualetan ez ezik, prozedurazko eta jarrerazkoetan ere bai, beren denbora nahi bezala ku-

deatzen dute eta beren kabuz antolatzen eta elkarlanean aritzen ikasten dute; era berean, eskolako curriculumari ikasleek beraiek ezartzen dizkiote mugak (beren ikaskuntza-erritmoa errespetatu egiten zaie) eta ez, ordea, metodologia didaktiko jakin baten arabera, adin-ka antolaturiko ikasle-taldeentzako testu-liburuek. Aintzat hartu behar dugu, era berean, honelako eskoletan maisu-maistrak betetzen duen eginkizuna.

Bigarrenik, landa-maisuen isolamendu pedagogikoa galarazi behar dugulako; kontua da beste maisu-maistra batzuekin hezkuntza-arauteriaren ondoriozko problematikak eta jarduerak partekatzea, iritziak jorratzea; baita gure haur eta gaztetxoak beste eskoletako umeekin partekatzea ere. Espainiako landa-gune askotan maisu-maistren eta umeen isolamendua (presentzialaz ari gara, ez birtualaz) gure eskolen kalitatea hobetzea eragotz dezakeen elementuetako bat izan daiteke.

Egiari zor, zortzigarren hamarkadaren hasieratik aurrera egin dugu, landa-eskolen multzoak sortzeari (CRA², ZER³, adibidez) edota informazio eta komunikazioaren teknologia berriak bertan martxan ipintzeari esker; hori, hein handi batez, testuinguruak berak determinatutako aukera izan da baina, halaz ere, landa-eskoletan pedagogiaren eta kudeaketaren autonomia hobetzen segitu beharra dago gerora ere aurrera egingo badugu.

Eskola horien benetako premiak aztertu eta errespetatu behar ditugu, (hiriko) "eskola handien antzerako" izan daitezen ahalegindu ordez.

Beraz, aurretiazko gogoeten atal hau laburbilduz, Espainiako landa-eskolako hezkuntzaren kalitatea hobetzeko proposamen batzuk egiteko premisa honetan oinarrituko gara: *landa-eskolak ikasi egiten du baina berarengandik ere ikasi egin daiteke*.

Landa-eskolako hezkuntzaren kalitatea hobetzeko proposamen batzuk

Ondoren aurkezten ditugun proposamenak landa-eskolaren azpiegitura eta instalazioei baino areago, curriculum eta kudeaketa aspektuei dagozkie, batez ere. Hauek, egoera tamalgarrian dauden herrietan hartu behar dira aintzat eta, bistan da, haurrek hartzen duten heziketaren kalitatean dute eragina baina, halaz ere, ume horien ikaskuntza-irakaskuntza prozesuari berari doazkien alderdi pedagogikoez arituko gara, batik bat:

- Goien ikusi dugunez, gure landa-eskolaren kalitatea hobetzeko kontuan izan behar dugun lehen elementua *ikasleen antolamendu heterogeneoa positibotzat hartzea da*. Horretarako ezinbestekoa da gizarteak, familieak, maisu-maistrek, hezkuntza alorreko aginta-

(1) Landa eskolako ikasle eta irakaslea. Bartzelonako Unibertsitateko Didaktika eta Hezkuntza-Antolamendu Saileko irakasle titularra; Kataluniako Sekretariat d'Escola Rural-eko kidea; Grup Interuniversitari d'Escola Rural de Catalunya (GIER) taldeko eta Observatori d'Educació Rural de Catalunya taldeko kide sortzailea.

(2) Taldekatuniko Landa-Ikastegia (Centro Rural Agrupado).

(3) Landa-Eskola Aldea (Zona Escolar Rural).

Pedagogiaren eta kudeaketaren autonomia hobetzen segitu beharra dago. Eskola horien benetako premiak aztertu eta errespetatu behar ditugu, (hiriko) "eskola handien antzerako" izan daitezen ahalegindu ordez

riek aniztasuna aberastasun gisa ulertzea eta ez, ordea, ikaskuntzan aritzeko eragozpenzat.

- Beharrezkoa da, era berean, *landa-ikasgelan lan-metodologiak bestela planteatzea*. Metodologia tradizionala talde homogeen zein heterogeenetan aplikatzea posible bada ere, haurren premia eta interesetan oinarrituriko estrategia didaktiko aktiboak ere baliatzeak ikaskuntza esanguratsuak garatzeko ez ezik, urte gutxi-gutxirekin autonomia maila handiak eskuratzeko ere aukera ematen du.
- Landa-eskoletako haurren egiazko premietara *egokituriko curriculum-materialak sor daitezzen* sustatzea. Ederki dakigunez, preskribaturiko eskola-curriculumaren, ikasleen gaitasunen eta testuinguruaren arabera,



Nora Salbotxen argazkia (2007).

Landa-gune askotan maisu-maistren eta umeen isolamendua (presentzialaz ari gara, ez birtualaz) gure eskolen kalitatea hobetzea eragotz dezakeen elementueta-ko bat izan daiteke

komunitateari atek zabalik dauden eskola horietan berrikuntzak eta ikerkuntzak ez dute etenik.

Iragarri bezala, horietan dira XXI. mendearen hasiera honetarako landa-eskola hobetzeko proposamenetako zenbait. Teknologia berrien erabilera jeneralizatuarekin edota sostengu-zerbitzu (jantokiak, garraioa, haurtzaindegia) gehiago inplementatzearekin loturiko beste hainbat ere azpimarra ditzakegu, noski. Dena den, proposamen horiek begi-bistakoak dira bai familientzat baita gizarte osoarentzat ere eta, halakotzat, landa-mundu horretara mantso edo azkar iristen ari dira. Landa-giroko ingurunean landa-eskolak orokorki eta curriculum-aniztasun eta heterogeneotasunaren eginkizun pedagogikoa ulertzea funtsezkoa da, seguruenik, une hauetan. Mese-de eskasa egingo diogu landa-populazioari landa-eskola hiri-eskolaren erdua imitatu behar duen elementutzat hartuta. *Berezko izaeran datza hezkuntzaren kalitatearen hobekuntzak.*

Erreferentzia bibliografikoak:

- Boix, R. (2007). "Necessitats de les escoles rurals actuals i propostes de futur". *Àmbits*, 36.
- Boix, R.; Feu, J. eta beste batzuk (2007). "L'école rurale en Catalogne. Une vision d'ensemble dans une perspective multidisciplinaire". Hemen: Alpe, Y.; Champollion, P. eta Poirey, J.L. (koord.), *L'enseignement scolaire en milieu rural et montagnard*, Tome 4. Besançon: Presses Universitaires de Franche-Comté.
- Barajas, M.; Boix, R. eta Silvestre, S. (2006). "Proyecto NEMED: una red transnacional para la escuela rural". *Aula*, 149.
- Boix, R. (koord.) (2004). *La escuela rural: funcionamiento y necesidades*. Barcelona: Editorial Praxis.
- Boix, R. (2003). *Estrategias y recursos didácticos en la escuela rural* (3. argitalpena). Barcelona: Graó/ICE de la UB.
- Boix, R. (2003). "Escuela rural y territorio: entre la desruralización y la cultura local". On-line: *Revista Digital eRural, Educación, cultura y desarrollo rural*.

beren eskolako haurrentzat curriculum-materialik egokienak zein diren erabaki behar dutenak maisu-maistrek dira. Talde eta landa-eskolaz kanpotik datozen material didaktikoak gabe, ikasleen ikaskuntza-edukiak baloratu eta aukeratu behar ditu landa-maisuak.

- Landa-eskola *etorkizuneko maisu-maistren hastapeneko prestakuntzan aintzat hartzea*. Irakasle lanbideko ikasketa-planetan landa-eskolak bere tokia hartu behar du, hiri-eskolak berea hartu zuen bezala. Kontua ez da berriazko prestakuntza ematea, ezta espezializazioa egitea ere. Etorkizuneko maisu-maistra denek horrelako ikastetxeen prestakuntza hartzea baizik.

Ez da gizabidezkoa biharko maisu-maistrek herrialde honetan landa-eskola ere badenik ere ez jakitea; ezta, era berean, ikasgela berean diren adin desberdinetako haurrekin lan pedagogikoan nola jardun asmatu ez eta, horren ordez, hiri-eskolako eredu pedagogikoari jarraitzea, landa-ingurunea eta bertako baliokulturalak gutxietsita. Horiek ez ezik, landa-maisuaren egiazko premietara egokitutako *etengabeko prestakuntza* planetan landa-eskola aintzat hartzea ere bai.

- Landa-eskolen multzoko kide diren eskolen artean *antolamendu- eta kudeaketa- autonomia mailak areagotzea*. Planteatu ditugun proposamenetako batzuk ezin dira praktikan jarri landa-eskolek beren errealitatei eta beren eskola-premiei egokituriko arautegiak ez badituzte. Esan gabe doa horiek eta hiri-eskolakoak ez direla beti berdinak eta, noski, landa-eskolaren berriazkotetasunak arautze-malgutasun handiagoa eskatzen duela. Premia larrikoa da "*landa-eskola entzutea*": eskola txikia bada ere, horrek ez du esan nahi ez duela iritzia eman eta proposamenak aurkeztu behar. Aitzitik,

Eskola txikia bada ere, horrek ez du esan nahi ez duela iritzia eman eta proposamenak aurkeztu behar. Aitzitik, komunitateari atek zabalik dauden eskola horietan berrikuntzak eta ikerkuntzak ez dute etenik

Gelako esperientzia bat: errezetak

Nola egin genituen errezetak eta errezeta bilduma

Elena Laiz Sasiain

San Millán eskolako Lehen Hezkuntzako irakaslea

San Millán Eskola Gipuzkoako eskola txiki bat da, txikia tamainaz eta ikasle kopuruz, baina handia asmo, gogo eta ilusioari dagokienez. Gelan hainbat adinetako ikasleak elkartuta daudenez, denekin proiektu/gai/testu mota bera lantzen dugu. Bakoitzak bere mailaren arabera erantzuten du eta emaitzak ez dira berdinak, noski, baina elkarreraginean asko eta ondo ikasten dute.

Ondoren agertzen den esperientzia Gipuzkoako Zizurkilgo San Millán Eskolan eraman zen aurrera, zehazkiago Lehen Hezkuntzako 3, 4, 5 eta 6. mailako ikasleen gelan.

Errezeta, testu mota

Instrukzio testuen artean, eta eskolan landu ahal izateko, "goxoa" denik ezin ukatu errezeta, "zuku" ugari atera baitakioke, atera ere. Lerrook irakurri ahala, gainera, uste dut "gosea" egingo zaizuela eta ausartu ere egingo zaretela testu mota honekin lan egitera, hizkuntza idatzia zuen ikasleekin lantzeko orduan.

Benetako errezetekin lan eginda, begi-bistan izango dituzue testu-mota honen ezaugarri eta baliabide guztiak; dena den, gure kasuan, ondokoak baino ez ditugu aztertu:

- **Formatua:** antolaketa espazioan ere berariazkoa du.
- **Luzera:** Testuok ezin dira luzeegiak izan, instrukzio-testuak izanik, praktikotasuna baitute helburu. Egingo

ote luke inork pare bat folioko errezetarik?

- **Testu-egitura:** Bere izenburu, osagaien zerrenda (zutabea edo koma artean), pasarte bat edo beste egikera azalduz, eta egindakoaren argazkiren bat, agian.
- **Egitura jakinak:** Errezeta gehienek badituzte, hala nola: mahaikoen kopurua, osagaiak, egikera edo prestaketa, iraupena, zailtasuna maila, etab.
- **Lexikoa:** Darabilen hiztegia oso berariazkoa da, jakina, zehatza eta tekniko samarra (beratu, maneatu, gainerre, harrotu, irabiatu...).
- **Kategoria gramatikalak:** Izenak agertuko zaizkigu batik bat osagaietan, baita izenondoak eta kantitate mugatzaileak ere. Egikera edo prestaketa atalean, aldiz, aditz ugari aurkituko dugu infinitiboan, aginteran edo forma ez pertsonalean; baita modua, lekua eta kantitatea adierazteko aditzondoak ere. Esaldi laburrak eta bakunak dira gehienak, koma eta puntu ugari eta hainbat testu antolatzailez josiak.
- **Irakurtzeko modua:** Bitxiak dira errezetak irakurtzeko ditugun ohiturak: ia beti zutik, sukaldean eta mahukak bildurik. Azaletik eta arin-arin irakurri ohi dugu lehenik, ideia nagusiaz ohartzeko, eta atal jakinak begiratzen ditugu (ea osagaien bat falta dugun, zenbat denbora beharko dugun, zailtasuna, laberik edo hozkailurik behar ote dugun, etab). Ondoren, atalez atal

eta behin eta berriz irakurtzen dugu, egin ahala eta, jakina, arreta handiz. Zenbait hitz eta argibidetara, gainera, behin eta berriro itzuli ohi gara.

- **Izenburu-edukia harremana:** Izenburuak ia beti jasotzen du osagai nagusiaren izena, eta, askotan, baita egikeraren gaineko aipamenen bat ere (bakailaoz betetako piperrak, patatak errioxar erara, legatza saltsa berdean, haragi erregosia, txibia frijituak, etab).

Errezeta bilduma egiten

a) Esperientziaren abiapuntua...

Irailaren erdialdera hasia nintzen pentsatzen nolako testu motak landu behar nituen ikasleekin ikasturtean zehar.

Nire kezkek ikasleei azaldu, eta aurreko ikasturteko lanak kontuan izanik, berehala egin dugu aukera, eta aukeren artean dago errezetarena, jakina. Testu mota hori lantzeko zer-nolako aukerak ditugun hitz egin dugu, eta ideia bat edo beste eman diet nik. Lehen hiruhilabetean landuko dugula erabaki dugu, urriaren azkenaldira arte edo.

Berehala hasi gara hizketan errezetaren inguruan, zer ezaugarri dituen, nola definituko luketen, etab. Etxetik ekarriko ditugu, gainera, errezeta horiek (liburuak, koadernoak, aldizkariak, errezeta solteak, etab.).

Hasiak gara, horrenbestez, lanean. Nire aldetik, aktibi-

tateak antolatzen hasi naiz. Irakurriak nituen alde zurreretik hainbat apunte, bibliografia bila ere hasia nintzen, etab; ez nuen, ordea, gauza handirik aurkitu, salbu eta Myriam Nemirovsky-ren ideien bat eta "Leer y Escribir" Edelvives argitaletxeko liburuan beste zertxobait. Ez dut, beraz, beste irtenbiderik, lanari heldu baizik; eta, zorionez, ideia batzuk badatozkit burura.

Etorri ahala, aktibitate zerrenda egiten dut, gogoan harturik, alde batetik, zertarako eta nola erabiltzen ditugun errezetak gure etxeetan, eta zertan izan litezkeen interesgarri, bestalde, bai egoki baliatzeko testu mota hori, bai aurrera egiteko hizkuntza idatziaren ikasketan. Zerrenda goitik behera irakurrita, badakit gustatuko zaiela ikasleei, eta gozatu egingo dugula, gainera, ikasten. Esan beharra daukat neroni ere erakartzen nauela testu mota honek; gainera, oso gutxi landu dut orain arte.

Luzatu eta erantsi jarraitzen dut aktibitate zerrenda horrekin, eta bildu ere egiten ditut sukaldeko errezeta eta hainbat liburu eskolara eramateko hurrengo egunean. Geroago antolatuko ditut jarduera horiek, eta ataza horien nondik norakoa zehaztuko.

b) Errezeten ezaugarriak ezagutzeko jarduerak...

Konta dezadan, hasteko, nolako jarduerak edo atazak landu genituen lehen hamar edo hamabost egun haietan:

- **Definitu zer den errezeta:** Nork bere definizioa ida-

tzi zuen, ozenki irakurri genituen, alderatu eta aztertu genituen, eta iritziak eta ideiak eman genituen. Binaka, definizio berri bat idatzi zuten, ahal zela, norberak egindako hura baino hobea; irakurri genituen, aztertu, etab. Eta, elkarrekin, hoberena hautatu genuen.

Ondoren, hiztegi eta entziklopedietan, errezetaren definizioak bilatu genituen (aurkitu genuen, jakina, bat edo beste bitxi edo berririk, sendagilearena, adibidez) eta gureekin alderatu genituen. Hobeak ziren batzuk; ez guztiak, ordea, gure ustez.

• **Lotu izenburuak, osagaiak eta egikerak:** Liburu eta aldizkarietan bilduak genituenetik errezeta gogokoan aukeratu, fotokopiatu eta zatiak egin nituen (izenburuak, osagaiak, egikerak.. bananduz). Binaka berrantolatu behar zituzten. Aukeratzeko orduan, osagai nagusi bera edo antzeko osagaien bat edo beste zutenak aukeratu nituen, derrigor irakurri zezaten errezetaren egikera.

• **Antzeman lekuz kanpoko osagaiari/ei, eta aurkitu trukaturakoaren/en ordezkioa/k:** Horretarako, trukaturatu nituen nik errezeta batzuen osagaiak (ikus 1go koadroa). Bakarka zein binaka, igarri behar zieten osagai "arrotzi" eta, egikera irakurritz, haien ordezkio jatorrizkoak aurkitu.

• **Aurkitu falta den/diren osagaia/ak:** Aurreko jardueran bezalaxe, erantsia/k edo kendua/k n(it)uen ordu-rako errezeta batzuen osagaia(k). Hori(ek) atzeman behar z(it)uzten egikera irakurritz, jakina.

• **Trukatu errezetak:** Taldeka, adin aniztasunaz baliatuz (hau da, maila ezberdinetakoak elkartuz), umeez trukatu, kendu edo erantsi behar zituzten osagaiak, eta beste talde batek, igarri.

• **Sailkatu errezetak:** Errezeta pilo bat genuen nahasian, eta sailkatu behar genituen, baina ikasleek beraien aukeratu behar zituzten horretarako irizpideak. Iritziak ugariak zirenez, zenbait errezeta bilduma begiratu genuen, ikus zezaten nola ziren antolatutako edo sailkatutako. Azkenik, erabaki zuten plater motaren arabera egitea (sarrerakoak, lehenengo platerak, bigarren platerak, gainekoak) eta artxibo bat egin genuen errezeta horiekin guztiekin.

• **Ekarri familiako norbaiten errezetak:** Aita-amei, osaba-izebei... idatz ziezagutela gogoko zuten plateren baten errezeta eskatu behar zieten. Zenbait haurrek (pentsa nolako ilusioa eta ahalegina) ekarri zituen, pozik ekarri ere, haien aitona-amonek eskuz idatzitako errezetak (ikus 2. koadroa): zenbaitek lehen aldiz orduan idatziko zuten euskaraz; eta beste zenbaitek, lehen aldiz ez bazen ere, bai aspaldiko partez.

40 – ENSALADA DE AGUACATE Y PLÁTANO

Ingredientes:

- 1 lechuga
- caldo de pescado
- 2 aguacates
- 4 cuch. de maíz cocido
- vinagre de sidra
- aceite de oliva
- sal gorda

Elaboración:

Lava bien la lechuga y colócala troceada en juliana en el fondo de una fuente.
Pela los aguacates y los plátanos, trocéalos y colócalos sobre la lechuga.
Aliña la ensalada con aceite, vinagre y sal gorda.
Por último, esparce los granos de maíz cocidos y sirve.

809 – MERLUZA EN SALSAS ROJA




Ingredientes:

- 4 rodajas de merluza
- 300 g de almejas
- 4 dientes de ajo
- 1 cebolla
- perejil picado
- un chorrito de vino blanco
- 2 plátanos
- 3 cuch. de carne de pimiento choricero
- aceite
- harina

Elaboración:

En una cazuela de barro rehoga el ajo y la cebolla, y cuando estén hechos añade las rodajas de merluza, previamente pasadas por harina. Echa un poco de harina en la cazuela y déjale se hagan un poco. Da la vuelta a las rodajas. Cuando la merluza comienza a soltar su gelatina, mueve la cazuela con un paño mojado y añade entonces el vino blanco poco a poco, moviendo y agrega lentamente el caldo de pescado. Cuando la salsa espese un poco, añade las almejas y la carne (o salsa) de pimiento choricero. Cuece todo a fuego lento durante 8 minutos. Espolvorea con perejil picado y sirve.

1-go koadroa: Osagaien bat edo beste trukatu zaizkien errezetak



2. koadroa: Aitona-amonek eskuz idatzitako errezetak

c) Lortutako errezetekin jolasean...

Langintza honetan ari ginela, geure errezeta liburuaren egin behar genuela bururatu zitzaigun; bertan sartuko genituen bai ordura arte landutakoak, bai ondoren landuko genituenak, nola gure familietakoak, hala geuk idatzitakoak. Beraz, material hura guztia gorde behar genuen. Eta jarraitu genuen lanean:

• **Idatzi ordenagailuz:** Ordenagailuz idaztea erabaki genuen etxetik eskuz idatzita ekarritako zenbait errezeta.

CROQUETAS

Ingredientes:

- 75 dl de leche
- 4 cucharadas de harina
- Sal
- 50 grs de jamón
- 2 huevos
- Pan rallado
- Aceite

Elaboración:

Pon en un cazo la mantequilla a calentar y en otro cazo la leche. Echa la harina a la mantequilla y mezcla rápido. Echa la leche a esa masa poquito a poco hasta terminar toda la leche. Echa el jamón picado y pon a punto de sal. Cuando la bechamel esté espesa (aproximadamente 10 minutos) echa a una fuente ancho y deja enfriar. Haz trocitos y redondea dando forma de croqueta. Pasa por huevos y por pan rallado y fríe.

1. irudia: Lehen Hezkuntzako 4. mailako ikasle batek ordenagailuz idatzitako errezeta

- **Antolatu alde zurretik nahastutako errezeta baten egikera:** Nik nahasten nizkien hasieran testuak, eta haiek ordenatu behar zituzten (bakarka lehenik eta binaka gero) testuak egokiak eta argiak izan zitezkeen, errezetak egin ahal izateko.
- **Nahastu egikerak:** Bikote bakoitzak nahastu behar zuen, testu prozesatzaileaz baliatuz, ordenagailuan gordetako errezeta bat. Beste bikote batek antolatu behar zuen, eta alderantziz.
- **Jarri izenburuak errezetei:** Aldez aurretik izenburuak kendurik ematen nizkien errezetak, behin irakurri ondoren, haiek izenburu egokiak jar ziezazkien. Gero jatorrizko izenburuekin alderatzen genituen, hausnarketa eginez (ikus 3. koadroa), horrela, zeinen berezia den errezetei izenburua jartzeko bidea.

d) Errezeta bilduma egiten...

Erabakia genuen geure errezeta bilduma egitea eta, beraz, sakon aztertu beharra geneukan nola antolatu testua, zer itxura eman, eta zein euskarri aukeratu. Eta gainera, bi hizkuntzatan egitea erabaki genuen, zeren euskarazko zein gaztelaniazko klaseetan ari baikinena errezetak lantzen, errealitateak hartara beharturik, zorionez; alegia, material ugariago genuen gaztelera euskaraz baino, eta iruditu zitzaigun polita izan zitekeela errezeta hoberenak bi hizkuntzetan ematea, gero etxeetan erabili ahal izateko.

Harrezkero, orduak eta orduak eman genituen hizkuntza batekoak bestera itzultzen (ikus 4. koadroa); hau da, haien etxeetatik euskaraz ekarritakoak eta geuk euskal liburuetatik aukeratutakoak gaztelera ematen genituen, eta alderantziz egiten genuen gaztelera jasotakoekin.

"Sorbeta de fresas": Luze eztabaidatu ondoren, izenburu hau ego-kiagotzat jo genuen jatorrizko izenburua bera baino.

SORBETE DE FRESAS

Hielo de fruta

Ingredientes

- 10 cucharaditas generosas de nata montada (se pasteuriza)
- 12 fresas de tamaño medio
- 4 cucharaditas de mermelada de frambuesa

Utensilios

- Plato
- Cuchara
- Cuchara
- Cuchara
- Bandeja de cubitos


Para seguir:

Lava las fresas y quítale el tallo.

Aplasta con un tenedor la fruta y mézclala con la mermelada.

Añade este puré a la nata, da vueltas con cuidado.

Echa el preparado en una bandeja de cubitos de hielo y métela en el congelador unas cinco horas.



"Canapé de salchichas": Egokiago ikusi zuten jatorrizkoa, ogia ez baitzen bete egiten, estali baino, osagai nagusiaz.

PAN RELLENO DE SALCHICHAS

Canapé de salchichas

Ingredientes

- 1 círculo de pan de molde
- 1 salchicha tipo Frankfurt
- 1 cucharada de salsa de tomate frito

Modo de hacerlo:

Corta una salchicha en rodajas con las tijeras.

Unta con tomate una rebanada de pan.

Coloca unos trocitos de salchichas sobre el pan.

3. koadroa: Errezetei jarri zitzaizkien izenburuak

- Conejo en menestra -

Ingredientes: Conejo, Sal, aceite, Zanahoria, puerro, cebolla, pimiento verde, vino blanco, harina, guisantes, alcachofa

--- --

Poner aceite en una cazuela y añadir zanahoria, puerro, cebolla y un pimiento verde.

Cuando todo esto esté un poco he de poner el conejo al que ya le habamos puesto sal; se rehoga bien con la verdura y a continuación se añade un chorro de vino blanco un poco de agua y una cucharada de harina para engordar la Salsa.


Hervir durante una media hora o fuego bajo.

Añadir unas alcachofas y unos guisantes.

UNTZIA MENESTRAN

Osagaiak

- Untzia
- gata
- olioa
- zanahoria
- porrua
- tipula
- pipar berdea
- ardo zuria
- harina
- garritak
- albarbifikak



NOLA EGIN

Kazula batean olioa jartu eta zanahoria, porrua, tipula eta pipar berdea gehitu. Hori dena gogor egiten denean, untxia gehitu eta guisanteekin gortatu. Ondoren ardo zuria, eta eho zera baltzarrikada bat gehitu. Salsa berdea. Ondoren, hutsa egosi eta berriz albarbifikak eta albarbifikak gehitu.

ON EGIN!!!

Profiteroles

Señalase una cazuela al fuego con el agua, la manteca y la sal y se añaden cuando arran- que a hervir, retirese del fuego y añádase toda la harina de golpe, la Levadura Royal y la canela molida. Sin parar de remover, vuélvase la cazuela al fuego hasta que la pasta se despreja de las paredes (un minuto aprox.). Viértase la pasta en un bol y, cuando esté fría, añádanse uno tras otro los huecos batiendo enérgicamente hasta obtener una pasta cremosa. Con la ayuda de una manga de boquilla ancha y lisa, o con una cuchara, háganse bolas de tamaño de una nuez con la pasta y déjenlas reposar en un plato con la sal y el azúcar. Cuando arran- den a hervir, retirese del fuego y déjenlas reposar en un plato con la sal y el azúcar.

INGREDIENTES

- 141 de agua
- 125 grs. de manteca
- un pellizo de sal
- 150 grs. de harina
- 4 huevos
- 1 cucharadita de canela molida
- 1 sobre de Levadura en polvo Royal
- 50 grs. de azúcar
- 50 grs. de azúcar gordo

Señalase una cazuela al fuego con el agua, la manteca y la sal y se añaden cuando arran- que a hervir, retirese del fuego y déjenlas reposar en un plato con la sal y el azúcar. Cuando arran- den a hervir, retirese del fuego y déjenlas reposar en un plato con la sal y el azúcar.

Señalase una cazuela al fuego con el agua, la manteca y la sal y se añaden cuando arran- que a hervir, retirese del fuego y déjenlas reposar en un plato con la sal y el azúcar.

PETISUISAK

Osagaiak

- 1/4 lura
- 125 gr mantekila
- Gata pika bat
- 150 gr irina
- 4 arrautza
- 1 kutsarrikada bat
- kanela zehatza
- Sobre bat lehadura
- 50 gr azukrea
- 50 gr gilas azukrea

NOLA EGIN:

Una cazuela batean jarri sutan, mantekila, gata eta azukrearekin. Irakiten ari den bitartean, irina kanela eta lehadura bota. Galduta gabe bueltak eman, berriro sutan jarri pasta uskatu arte (minutu bat gutxi gora behera). Pasta hota untxi batean, gero ondo denean, arretarik banaka bota, gogor batiu pasta kremu egiten arte. Mangarekin edo kutsarrikarekin lagunduz, egin bolak eta sartu mantekilaz igurtzirik handia batean bi beuzko tartara utzi. Handia labean sartu (20 bat minutu; 180°C tako berotasunarekin). Labean aterki ireki gabe edukitzen sartu. Hasi bukatutakoan petisuisak ebaki eta krema pasteleraz bete, gilas azukrea bota eta txokolate berroz lagundurik jartu prest.

4. koadroa: Hizkuntza bateko errezetak bestera itzultzen

e) Izandako zailtasunak...

Testu mota preskriptiboa izaki, bazituen errezetak berriazko zailtasunak (lexikoa, joskera etab.), eta horiek gutxi baliran, beste eragozpen handi bat genuen: hizkuntzarena, hain zuzen, oso gaitasun apala baitute oraindik ikasleok gaztelera aritzeko. Horregatik, eta haien esku baliabide gehiago jartzearren, errezetak itzuli ahala, hainbat aktibitate eskaintzen nien hizkuntzaren arlo zailenei errepara ziezaieten, hala nola:

- **Aurkitu elkarrekikotasunak bi hizkuntzen artean:** Zein antolatzaile ziren baliokide hizkuntza batean eta bestean aurkitu nahi genuen.

- **Igarri zein errezeta motatan ager litekeen halako hitza:** Eztabaidatu guztien artean non aurki geneza-keen oreku, iragazi, erre, eho, irakin, ... eta antzekoak.
- **Aurkitu testu-antolatzaileak egikeraren atalean:** Pasarte hasierak aurkitu behar zituzten, banaka edo binaka, eta nabarmendu erroto-lagailu fosforeszentea erabiliz; ondoren, zerrendatu egiten zituzten horman ezarritako panel batean (behin egin ondoren, irakiten duen bitartean, lehendabizi, beste ontzi batean, ...). Euskarazko zein gaztelera testuekin egiten zuten lan hau.

- **Bilatu errezetaren berriazko hitzak:** Horretarako, irakurri behar izan genituen berriro ere ordura arte bildu eta landutako errezetak, errezetetan behin eta berriro erabiltzen diren berriazko hitz edo esapideak -beste testu mota batzuetan nekez aurkituko genituzkeenak (gatz-pipertu, gainerre, eztiitu, erre-gosi ...) - aukeratuz eta zerrenda batean ezarriz.

HIZTEGI BEREZIA	VOCABULARIO ESPECÍFICO
A	
Apaindu :	Decorar
Arindu :	Aligevar
Atera :	Sacar
Azal-gorritu :	Derar, rehogar
B	
Behatu :	Tamizar
Banatu :	Repartir
Berezi :	Separar
Berotu :	Calentar
Bete :	Llenar
Bildu :	Recoger
Bizilagotu :	Rejuvenar
Bota :	Echar
Busti :	Mojar
D	
Destatu :	Probar
E	
Ebaki :	Cortar
Eduki :	Tener
Egin :	Hacer
Egosi :	Cocer
Eman :	Dar
Epeldu :	Templar
Erebili :	Usar
Erogin :	Ramover
Erontsi :	Anadir
Erre :	Asar
Estali :	Cubrir, tapar
Eztiitu :	Endulzar
F	
Ferrotu :	Fornar
Freshatu :	Refrescar
Frijitu :	Freír

2. irudia: Errezetei dagokien berriazko hitz zerrenda, behin alfabetoaren arabera antolatuturik

Geure errezeta liburua egin behar genuela bururatu zitzaigun; bertan sartuko genituen bai ordura arte landutakoak, bai ondoren landuko genituenak, nola gure familetakoak, hala geuk idatzitakoak

Ikasleek erabaki zuten gure etxeetan maizen erabilitakoak azaldu behar zituztela; alegia, ongi ezagutzen zituzten plateren errezetak etxean behin baino gehiagotan egiten ikusiak zituztelako. Lan hori burutzeko, batzuetan gelako hiztegiari heltzen zioten, baina baita beraien egindako lokailu zerrendari ere

f) Errezeta bilduma borobiltzen eta bukatzen...

Jarduera honen eraginez, eta errezetaren mundua ezagutu ahala, burura etorri zitzaizen ikasleei gure errezeta liburuari jarri behar geniola halako eranskin bat, berriazko hiztegia bi hizkuntzetan ezarririk. Orduan bertan erabaki genuen bi hizkuntzetan eman behar genituela gure liburuko errezeta guztiak, eta, multzo handia genuenez, ez genuela errezeta gehiagoren beharrik.

Ordurako, urriaren erdialdera iritsiak ginen. Errezetaren inguruan hainbeste lan egin ondoren, konturatu ziren ordura arte eskuartean erabilitako errezeta sorta haietan bederen, ez zela inon ere azaltzen nola prestatu behar ziren platerik erabilienak, gure etxeetan maizen eta gehien jaten ditugun horiek, hain zuzen. Luze mintzatu ginen honetaz eta baita ondorioz atera ere (amek alabei ahoz irakatsi dietena, etab.).


Erabakia hartu genuen, beraz, apaltasunez baina, hutsune hori bete behar genuela. Hortik aurrera, hor aritu ziren (aritu ginen), beste zereginen artean, ondorengo langintza interesgarri eta atsegin honetan.

Ikasleek erabaki zuten gure etxeetan maizen erabilitakoak azaldu behar zituztela (ikus 5. koadroak); alegia, ongi ezagutzen zituzten plateren errezetak etxean behin baino gehiagotan egiten ikusiak zituztelako. Lan hori burutzeko, batzuetan gelako hiztegiari heltzen zioten, baina baita beraien egindako lokailu zerrendari ere, gero eta osatuagoa, bestalde.

HUEVO FRITO
CON PATATAS

Ingredientes

- 1 huevo
- sal
- 1 patata pequeña
- 3 cucharadas de aceite



Elaboración


Primero pela y corta la patata en palitos y fríelos en aceite caliente. Cuando los saques de la sartén sécalos. A continuación calienta bien el aceite, échale el huevo y sécalo. Con la ayuda de una espuñadora moja la parte de arriba con aceite. Cuando la clara se blague sécalo. Sírvelo con las patatas.

BUEN PROVECHO!!!

FILETE CON PATATAS FRITAS
(para 3 personas)

Ingredientes

- 3 hermosos filetes
- aceite
- sal (opcional)
- patatas frías para acompañar



Elaboración

Echale aceite a la sartén y espera a que se caliente. Cuando se caliente pon los filetes, si quieres échales un poco de sal. Cuando la parte de abajo esté bien hecha dale la vuelta y añade un poco de sal. Cuando esté bien hecho ponlo en el plato y... ¡¡¡Vaya! listo.

PATATAS FRITAS: Pela las patatas y córtalas en palitos. Pon el aceite a la sartén y deja calentarse, entonces echa las patatas y añádelas por encima un poco de sal. Cuando se fríen bien, sécalas y sírvelas con el filete.

5. koadroa: Haurrek egindako errezetak, euskaraz zein gaztelez

g) Errezeta bilduma erabiltzen...

Ulertuko duzue, hain elikagai eztiak mintzagai izanik, ahogozoa eginga geneukala ordurako; bidezkoa zen, beraz, gelditu, atsedean hartu, utzi alde batera idazketa kontuak eta, bete-betean, sukalde lanari ekitea. Esan eta egin! Gure errezeten artean, bilatu genituen eskolan egiteko modukoak (ez genuen ez surik ez laberik). Berehala erabaki genuen zeinek zer eta nola ekarri, eta zeinek zer egin. Aldez aurretik gonbidatuak genituenez eskolako beste bi ikastaldek, osagaien neurriak ere kontuan hartu behar izan genituen.

Ostegun arratsalde batean, hironaka, lau plater zein baino zein goxoagoak prestatu genituen, eta azken orduan eskolako guztiok elkartu ginen merienda eder bat egiteko (beste hiru aldiz ere egin genuen geroago).

Urria bere azkenetan genuen, ordea, eta gogor lan egin beharra geneukan, gure errezeta liburua bukatu nahi bagenuen (neuk ezarria zen epea, eskolatik alde egin beharra baineukan, azaroaren aurrenetik abenduaren erdialdera bitartean, eta nahi nuen bukatu esku artean generabilen lan hura). Eta bagenuen oraindik zeregina, gainera: maketazio kontuak, ilustrazioak, azala, etab.

Horregatik, hainbat erabaki hartu behar izan zituzten: liburuetatik jasotako errezetak fotokopiatuturik emango genituen; geuk egindakoak, batzuk eskuz idatziak, beste batzuk makinaz, eta besteak, ordenagailuz; aitonek, amonek, amek, osabek, izebek, etab. eskuz idatzirikoa bere horretan emango genituen, inolako aldaketarik gabe; eskerrak emateko ohar bat ere idatziko genuen liburua sarreran; hiztegiaren eranskina, bukaeran jarriko genuen; erreseina txiki bat ere jarriko genion, edukiaren berri emanez, atzeko azalean; etab., etab.


Bukatutzat eman genuen halako batean gure lana. Ale pila bat oparitu genion hurbileko jendeari, bat edo beste bidali ere bai sukaldari ospetsuei (Argiñanori, Subijanari), eta saldu ere bai mordoska bat adiskideen, senideen eta abarren artean (fotokopiak ordaintzeko).

Arrakasta izan zuen liburuak, eta zorionak eman zizkiguten zenbaitek. Harritzeko aukera ere izan genuen: Subijanak TVko bere programan erakutsi zuen gure liburua, baita errezeta bat egin ere; Argiñanok bere liburu bana oparitu zigun, etab. Oroz gain, ordea, ikaragarri ikasi genuen hizkuntza idatziaren ganean, eta ikaragarri gozatu ere bai irakurle eta idazle izanik.

Niri, berriz, ideia ugari geratu zitzaidan oraindik tintontzian eta handik urte batzuetara heldu diogu berriro testu mota honi: bigarren eta hirugarren errezeta liburuak ere argitaratu ditugu dagoeneko; horrela ari gara, bada, San Millán Eskolako Errezeta Liburu Bilduma osatzen.



Nora Salbotxen argazkia (2007)



2006 ETA 2007. URTEETAN ETXEKO TXIKIENENTZAT AUKERATUAK IZAN DIREN LIBURUAK.

**Doako ale bat jaso nahi baduzue,
bidaliezaguzue gutunazal handi bat helbide honetara:**

**Mondragon Unibertsitatea
HUHEZI
M^a Karmen Apraiz
Dorleta Auzoa z/g
20540 Eskoriatza (Gipuzkoa)**

Bertan zuen helbidea idatzi eta,
gastuak zurrizko, **2,03 euro**tako
zigiluak sartu barruan

Eskola txikiak, ikt-ak eta idazketa kooperatiboa

2000 urteaz geroztik Euskal Herriko landa-eremuko eskoletan ez dira gutxi izan IKTen demokratizazio eta eskolaratze saiakerak. Erronka honi gogo eta kemen bereziz heldu nahi izan zitzaion alarma gorriak pizten hasiak zirenean. Hiri girotik urrun egoteak, bertze aunitzetan bezalatsu, atzean geratze, isolamendu eta zutlogune digitala nabarmen uzten ari zituzteneko garaietan, Baztango zein Gipuzkoako eskola txikiak maisu-maistrek arazoak hausnartu eta horri aurre egiteko lehen urratsak ematen hasi ziren, bide berri bat jorratzen; eskola txikiak IKTak zabaldu, berauetan irakasle zein ikasleak trebatu eta gure errealitate horrek sortzen zituen beharretatik abiatuko liratekeen proiektuak asmatu, guretik eta guretzako jaiotakoak, mundua herri txikiak ekarri, eta, aldi berean, herri txikiak munduaren aurrean ezagutaraziko lituzketenak. Ilusio eta grina horretatik sortu ziren Kazeta¹ eta Txikiexpress² aldizkari digitalak, hain zuzen ere.

Ondoko lerroetan, ikasturte horietan ikasleen ordenagailuaren aurreko lanetako planteamenduz zein horietatik ondorioztatutakoaren zenbait zertzelada ekarriko ditugu, eskola handi zein txikiarako lagungarriak izan daitezkeelakoan.

Amaiurko eskolako "txikien gelan" - H.H.ko hiru mailak eta L.H.ko lehen zikloa bere baitan hartzen zituena-jasotako pasartetxo bat hasteko:

Ordenagailuaren aurrean bi ikasle (H.H. 1-3 urte- eta H.H. 2ko -4 urte- ikasleak) eta haien maistra daude. Antzerki testu bat idazteko erronka dute eskuartean eta H.H.1. mailako ikaslea da eskriba lanari heldu diona. Hor doa:

(...)

Julen (H.H.1.): "9" zenbakia zapalduz hasi du bere "idazketa"

Andoni (H.H.2.): (maistari zuzenduta) "Julen ez dakit zertan ari den... bederatzi..." (bere bikotekideak -H.H.1goko ikaslea, hain zuzen ere- 9 zenbakiari zapaldu baitio eta horixe bera agertu baita pantailan).

Maistra: "Ah bai? erraiozu berari zuk zer uste duzun"

Andoni (H.H.2.): "Zapatu edozein, baina hauei ez (teklatuaren gaineko aldeko lerroa, zenbakiena ale-

gia, seinalatzen duen bitartean), hokei (hizkiak kokatzen direneko tekla multzoa seinalatuz) . Ez zapatu 1ari eh!... Ni egonen naiz ikusten... ez zapatu 3 eta 4 eta 5 eta 6ari eh?!" (zenbakiak testuak idazteko balio ez duteneko konbentzimenduz).

(...)

Gogora dezagun, hasteko, gureak landa-giroko herri eskolak direla, non, hainbat adinetako ikasleek gela berean elkarrekin lanean arituko baitira (hau, asimetria³ egoera bermatuko duen errealitatea izaki). Bertzetik, ikuspegi konstruktibisten planteamenduei bagatzaizkio, eta eskola-eredu tradizioaletako bideetatik aldenduz, ikas edukien sekuentziazio mailakatu zurrunak ahaztuko ditugu, adinaren arabera aldatuko dena, ez baita hainbertze lantzen den eduki mota, baizik eta ikasleak edukiar buruz erdietsitako eraikuntzaren maila eta konplexutasuna.

Lan didaktikoaren ardatza oinarri hauetan paratuta dugularik, ez da, bada, harriztekoa gertatuko, halako edo bestelako adineko hainbat ikasle ekoizpen eta helburu bakar baten baitan lanean ikustea, bakoitzak bere gaitasun kognitiboen arabera, ekarpen baliagarri eta koherenteak egiten ikusiko ditugun ikasleak, alegia.

Talde txikian antolatutako idazketa ariketak proposatzearen onurez ari zaizkigu Guasch eta Milian (1999) egoera hauek metahizkuntza mailako hausnarketa banakako lanek baino gehiago sustatzen dutela erraten digutenean. Ikasleek hizkuntza beraren bitartez hizkuntzari buruzko hausnarketa eta eztabaida aieratzen dute, hizkuntza bera hizkuntzari buruz arrazoitzeko erabilia izanen da, hizkuntzarekiko ekin-tza manipulatio bat sortzen dela erran litekeelarik. Are gehiago, eta gure kasuan, alegia, ordenagailu bakar baten bueltan aurkitzen diren ikasle horien kasuan, manipulazio horrek bi adierazpen dituela defenda genezake; alde batetik, hizkuntza berari dagokion hausnarketa legoke (diskurtsoarena, formarena, puntuazioarena,...), bertzetik, idazteko tresna horretatik eratoritzen diren alderdiak genituzke (alfabetoa zein bertze idatz ikurrak ere begi-bistan izateak eta hortik erator daitekeen eztabaida, edota, manipulaziorako aukera "fisiko" indartsu horrek idazteko prozesuan bertan eragiteko duen modu berezi eta espezifikoa).

(1) www.pnte.cfnavarra.es/kzeta
(2) www.eskolatxikiak.org/txikiexpress

(3) Aurrera egiten bada, elkarrekintzarekin batean, asimetria harremanen beharraz solas egiten dute zenbait autorek (Oiharzabal, 2001). Hauen arabera, hezkuntza egoeretan, bata bertzeak baino gehiago jakin beharrean leudeke subjektuak, honela, garapenean aurrerago legokeenak, bertze kideari kontzeptu berriak ontzeko prozesuan lagunduz.



m
MONDRAGON
UNIBERTSITATEA

HUMANITATE ETA
HEZKUNTZA ZIENTZIEN
FAKULTATEA